



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko martxoaren 30a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, ezgaitasuna dutenei laguntza emateko zentroekin izenpetutako hitzarmena betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Errusiar Federakundea adopzioak bertan behera utzi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, NAGEL direlakoek beren betebeharrak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, 9/2005 Legearen aplikazioak alargun pentsioen kostua jaisteak ekarri duen ondorio ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Zarrakazteluko oinarritzko eskualdeko larrialdietako osasun garraioaren zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “La contaminación del pensamiento” erakusketaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Esako San Esteban eliza zaharberritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, lansariei buruz egiten dituen estatistiketan sexuaren aldagaia sartzearen inguruan onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, NA-150 errepideko “Urrozko bidegurutzea” izenekoan gertatzen diren istripuen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Zarrakaztelurekin lotzen duten errepideetako zoladura hobetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, enplegurako laguntza programak ezarri zituen 259/1992 Foru Dekretuaren aldaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Estatistika Institutuak eginiko “Nafarroako egoera industrial” inkestari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Orkoiengo Udalari egin zaizkion errekerimenduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetan egiten diren obretako segurtasun neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitalean fisioterapiako praktikak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, NAOrentzat kalitate ziurtagiria lortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, gaur egun Sakanan dauden industrialdeen betetze mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, haur eskola eta hartzaindegi deiturikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, gizarte-bazterkeriaren aurkako planaren emaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko zentroak 2006ko aurrekontuetan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Aldave egoitzaren lokaletan paratu den eguneko zentroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, 0-3 urteko haurrentzako hezkuntza-zerbitzu pribatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, eskola ordutegiko osasun larrialdiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Nafarroako hezkuntza sistemako gela aurrefabrikatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, ezgaitasuna dutenei laguntza emateko zentroekin izenpetutako hitzarmena betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak ezgaitasuna dutenei laguntza emateko zentroekin izenpetutako hitzarmena betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 10eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du ezgaitasunaren arloko laguntza zentroak kudeatzen dituzten enpresekin sinaturiko hitzarmen kolektiboari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

Lehenbizi, beste ezer baino lehen eta ikusita zein den galderaren planteamendua, honako zehaztapen hauek egin beharrean gaude:

Galdegileak eginiko galderaren sarreran, behin eta berriz aipatzen da "ezgaitasuna duten pertsonentzako laguntza zentroekin sinaturiko hitzarmena". Hala eta guztiz ere, benetan aipatzen ari den testua honako hau da: Ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko sektorearen lan hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitateko titularitate publikoko zentro itunduetarako onetsitakoa; izan ere, haren bidez arautu nahi dira ezgaitasuna duten pertsonen laguntza ematen dieten Nafarroako Gobernuaren titularitate publikoko zentroak kudeatzen dituzten entitateen eta haien langileen arteko lan harremanak. Horrenbestez, ukituriko enpresek eta haien langileek sinaturiko hitzarmen kolektiboa da nabarmena den bezala— eta, horrenbestez, bete-

beharrak ezartzen dizkie bi horiei, ez administrazio honi.

Hitzarmen kolektiboa, titularitate publikoko zentroetan foru administrazioarekin sinaturiko zerbitzuen kudeaketarako kontratu baten bitartez zerbitzu publiko bat ematen duten enpresen lan harremanak arautzen baititu, Nafarroako Gobernuak sustatu du, eta bere gain hartu ditu hitzarmen horrek enpresa sinatzaileekin ezarritako itunetan dakartzan eragin ekonomikoak, hain zuzen ere hau eginez: hitzarmen horiek aldatuz edo, zehazkiago, hitzarmen horietan adostutako modulu ekonomikoak aldatuz, ukitutako enpresei 2004ko martxoaren 4ko idazki batez azaldu zitzaizen bezala.

Hartara, ukituriko aldeek 2005eko maiatzaren 2an hitzarmen kolektiboa sinaturik (ekainaren 27ko 76. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), une horretatik aurrera Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak aipatu konpromisoa betetzeko jardun du. Kontuan hartu behar da ezen, nahiz eta Nafarroako Gobernuak 2005eko otsailaren 28an erabaki bat hartu aztergai dugun xedera-ko gastua onesteko, hartan ezarritako kopuruak, akordio horretan berariaz esan zen bezala, gehienekoak direla eta enpresen plantillak banan-banan eta zorrotz aztertu aurrekoak direla; hain zuzen ere, lan horrexetan ari gara.

Eta aurreko guztia esanik, eta egin diren galdera zehatzei erantzunez, honakoa esan behar dut:

1. Zertan da, gaur egun, ezgaitasuna dutenei laguntzeko zentroekin sinaturitako hitzarmena?

2005-2008 hitzarmenari berari dagokionez, behar diren txosten ekonomikoak egin dira itun bakoitzari dagozkion zenbatekoak ezartzeko. Behin behar den prozedura tramitatu ondoren, itunak aldatzeari ekinen zaio: erabiltzaile eta hilabete bakoitzeko modulua handituko da, harik eta hitzarmena sinatzearen ondorioz langileria kostuetan

izan den igoera hartu arte. Handitze horrek ituna aldatzen den unetik izanen du indarra. 2005eko urtarrilaren 1etik itunaren aldaketa sinatzen den egunera arte sortzen diren kopuruak ordainketa bakarrean ordainduko dira aldaketa horrek indarra hartzen duen egun berean

Aipatu beharra dago itunen aldaketa prestatzea eta ordaindu beharreko zenbatekoak ezartzea prozesu luze bat dela, enpresa guztiekin bilerak egitea eskatu duena. Horretarako, ondoko informazio iturriak erabili dira:

- Ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko sektorearen lan hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitateko titularitate publikoko zentro itunduetarako. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

- Zentro edo enpresa bakoitzaren hitzarmen kolektiboa, 2004an indarra duena.

- Zentroen 2004ko txosten teknikoa.

- Klausula administratibo eta teknikoen orriak eta itun bakoitzari ondoren egin zaizkion aldaketak.

- Langile subrogatuen zerrendak, halakorik daukaten zentroen kasuan, klausula administratiboen orrietako eranskinetan bilduta daudenak.

- Zentroetako langileen zerrendak, enpresek berek emanak.

Iturri horiei jarraituz, kalkulatu dago, klausula teknikoen orrietan eta langile subrogatuen zerrendetan zehazturiko langileak eta ondoren itunetan izan diren aldaketak kontuan hartuta, zenbateko kostua izanen duen hitzarmenak 2004an, 2005ean, 2006an, 2007an eta 2008an.

Langileen 2004ko ordainsariak 2004rako lansarien taula zentro horiei atxikita dauden langileei aplikatzearen ondorioz definituko dira, zentro edo enpresa bakoitzeko hitzarmen kolektiboaren arabera.

Gainera, kontuan hartu behar da badaudela langileak kasuko hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak baino ordainsari handiagoak edo/eta urteko lanaldi txikiagoak dauzkatenak. Betiere, lan baldintza horiei eusten jarraituko diete, hitzarmen bakarreko 11. eta 24. artikuluei jarraituz. Langile atxikien zerrendetan "eskuratutako eskubideak dauzkaten langile" gisa definitzen dira langile horiek.

Jaso beharreko ordainsariak, 2005eko hitzarmen bakarraren arabera, hitzarmen horren V. titularen arabera kalkulatuak izanen dira.

Oinarrizko soldataren eta hitzarmeneko osagarriaren kalkulua: Kalkulua bi oinarriaren arabera egin da: V. eranskinean definituriko lansarien taula

eta itunari atxikitako langileen lanbide kategoriak, azken kasu horretan kategorien parekotasunei buruzko hitzarmen bakarreko II. eranskineko taulari jarraituz. Langileak ordu kopuruaren arabera definitu badira, ordu bakoitzeko kostua honela kalkulatu da: urteko ordainsariak zati hitzarmen horren 11. artikuluan ezarritako egiazko urteko lanaldia.

Dedikazio osagarria: Urteko lanaldia zaindarien kategoriarako ezarritakoa baino luzeagoa duten langileei ordainduko zaiena da. Haren zenbatekoa soberako orduen ordainsaria da. Horrenbestez, zenbatekoa kalkulatzeko haxe egin behar da: orduko kostua -lansarien taularen arabera bider soberako orduen kopurua.

Jai egunen osagarria: Langileek igandeetan eta jai egunetan egiaz egindako lanarengatik jasotzen duten ordainsari gehigarria. Ordainketa egiaz lan egindako ordu osoen arabera egingen da. Zenbatekoa kalkulatzeko honako eragiketa hau egin da: orduen kopurua bider jai egunetako osagarria, hitzarmeneko V. eranskineko lansarien taulan ezarritakoaren arabera.

Lanpostu osagarria: Lanpostu jakin batzuk betetzen dituzten langileentzat enpresak ezartzen duen osagarria da. Zenbatekoa enpresak zehaztu behar du; horrenbestez, ez dugu kontuan hartu.

Osagarri pertsonala: Sektoreko hitzarmen kolektiboa aplikatuta dagokien ordainsari orokorra baino urteko ordainsari orokor handiagoa jaso izan dituzten langileentzat ezartzen den osagarria da. Osagarri hau hitzarmen bakarraren III. eranskinean ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

Antzintasunaren osagarri pertsonala: Kontzeptu honetan jasota dago hitzarmen kolektiboaren arabera 2004ko abenduaren 31n jasotzen den gaitasun osagarriaren zenbatekoa.

Kontzeptu horiek guztiak batuta lortzen dira hitzarmenaren arabera 2005eko ordainsariak.

Halaber, urrats berak egin behar dira 2006., 2007. eta 2008. urteetako kostuak kalkulatzeko, betiere honakoak kontuan hartuta:

Lanbide kategoria jakin batzuen lanaldia, hitzarmen bakarraren 11. artikuluen arabera, gutxitzen joaten da hitzarmen hori aplikatzen den aldira; horrenbestez, ordu bakoitzeko kostuak gora egingen du.

Aipatu beharra dago 2004., 2005., 2006. 2007. eta 2008. urteetan lorturiko zenbatekoen absentismoaren eta gizarte segurantzaren kostuak batu behar zaizkiela.

Absentismoaren ondoriozko kostua da hitzarmen bakoitzean ordeztan diren lanbide kategorien (zaintzaileak, etxeko zerbitzua, sukaldaria, sukaldako laguntzaileak, garbitzaileak...) ordainsariei % 7 aplikatuta ateratzen dena.

Behin hitzarmenaren arabera ordainsariak lortu ditugunean, eta absentismoaren kostua kalkulatu, gizarte segurantzaren kostua kalkulatu behar da: kostu horien % 32 izanen da.

Absentismoarengatik eta gizarte segurantzarengatik aplikaturiko ehunekoak ez datoz bat zentro horiek benetan dauzkaten kostuekin, baina bai Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren irizpideen arabera kudeaketa zuzenari dagozkion batez besteko kostuekin.

Kontzeptu guztiak batuta (ordainsariak, absentismoa eta gizarte segurantzaren), lortuko dugu hitzartutako zentroen kudeaketarengatik ordainsarrietan enpresek ordaindu beharreko kostua, 2004. urtean zentro bakoitzeko hitzarmen kolektiboaren arabera eta 2005., 2006. 2007. eta 2008. urteetan hitzarmen bakarraren arabera.

Horrenbestez, hitzarmen bakarra itundutako zentroetan aplikatzeak entitate kudeatzaile bakoitzarentzat 2005. urtean izanen duen kostua honakoa izanen da: urte horretako langileen kostua ken 2004. urteko langileen kostua.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak finantzatu beharreko kostua ondokoa izanen da: hitzarmen bakarraren arabera 2005. urtean langileengatik izaniko kostua ken 2004. urteko langileen kostua gehi urte horretako KPIa. Horren arrazoia da hitzarmenen klausula administratiboen pleguan aurreikusita dagoela moduluak automatikoki handitzea Nafarroako aurreko urteko KPIaren arabera. Hartara, institutuak finantzatu beharko duen kostua ezartzeko, deskontatu beharko da moduluen handitzearen bitartez 2005eko urtarrilaren 1etik finantzaturik dagoen zatia.

Berdin jokatu beharko da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak 2006., 2007. eta 2008. urteetan finantzatu beharreko kostua kalkulatzeko; horrenbestez, kostu hori izanen da urte horietako

langileen kostua ken 2004. urteko langileen kostua gehi urte horretako KPIa.

2006. urterako kalkulaturiko aldeari 2005eko KPIa gehitu beharko zaio, eta 2007. urterako kalkulaturiko aldeari 2005eko eta 2006ko KPIak gehitu beharko zaizkio. Hurrengo urteetakoak kalkulatzeko, berdin jokatu beharko da.

Kostu horiei % 7ko BEZa gehitu beharko zaie, itunaren adjudikazioa hartzen duen entitatea zerga horren subjektu pasiboa baldin bada.

Lansariei buruzko 2004ko akordioari dagokionez, gorago azaldutako moduan prestatu da. Hala ere, gobernuak 2005eko otsailaren 28an hartu zuen erabakiak baimena ematen zion Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileari soilik gastu konpromisoak hartzeko hitzarmen kolektiboak 2005etik 2008ra bitarte izanen zituen kostuek eragindako aurrekontu premiei aurre egite aldera. Hori dela eta, une honetan tramitatzen ari da gobernuari zuzendutako beste baimen eskaria, hain zuzen ere 2004ko lansariei buruzko akordioaren kostuak hitzarmenaren bertan jasotako eguna baino lehen ordaindu ahal izan daitezkeen, hau da 2005eko abenduaren 22a baino lehen.

2. Eman al zaizkie enpresei hitzarmen horretan jasotako diru kopuruak, atzerapenak barne? Baita: Zer diru kopuru eman zaio zentro bakoitzari? Estali al dira enpresek aurrekontutako gastuak? Erantzun arrazoitua eman bedi. Ezetzkoan: Ez-betetzearen zergatari buruzko erantzun arrazoitua eman bedi, eta zehaztu bedi zer neurri, ekintza eta epe aurreikusi diren hori konpontzeko. Noiz jasoko dituzte langileek kobratzeko dituzten diru kopuruak?

Aurreko galderari emaniko erantzunean azaldu dugun bezala, hitzarmen kolektiboa aldatzearen ondorioz itunetan egin behar izan diren aldaketarengatik enpresei ordaindu beharreko zenbatekoak jada definiturik daude, eta itunak aldatzeko kontratuen sinadura bideratuko duen prozedura administratiboa amaitzea baizik ez da falta. Ondoren azaltzen ditugu urte bakoitzean ordaintzea aurreikusi ditugun kopuruak, honakoak bereizirik: alde batetik hitzarmenerako berarako kopuruak eta bestetik 2004. urteko lansarien akordiorako kopuruak.

Adjudikazioa hartu duen entitatea	Ituna	2005	2006	2007	2008	Guztira
AGEDNA, S.L.	Valle del Roncal egoitza Santa Maria egoitza	349.097,38	480.723,62	573.428,57	603.807,74	2.007.057,30
AGEDNA, S.L.	Atalaya egoitza	173.245,95	215.320,09	246.637,27	257.997,22	893.200,53
SERVIRECORD S.L.	Oncineda egoitza Monjardin egoitza Etxebizitza funtzionalak: Mendebadea, Las Torchas eta Vencerol	76.214,96	151.695,37	204.746,62	218.702,60	651.359,54
F. ASPACE NAVARRA	Infanta Elena egoitza	111.129,54	182.242,17	235.047,84	251.310,29	779.729,84
GUZTIRA		709.687,83	1.029.981,24	1.259.860,29	1.331.817,84	4.331.347,21
Gobernuaren erabakia		847.736,00	1.218.069,00	1.468.895,00	1.548.643,00	5.083.343,00

Oharra: hona zenbatekoak, itun bakoitzari atxikitako langileen arabera. 2006tik aurrera adierazitako kopuruetan sarturik dago KPlaren igoeraren aurreikuspen bat, % 3koa.

Entitatea	Ituna	Zenbatekoa
AGEDNA, S.L.	Valle del Roncal egoitza eta Santa Maria egoitza	123.822,69
AGEDNA, S.L.	Atalaya egoitza	59.493,48
SERVIRECORD S.L.	Oncineda egoitza, Monjardin egoitza, etxebizitza funtzionalak: Mendebadea, Las Torchas eta Vencerol	34.790,46
Aspace Navarra Fundazioa	Infanta Elena egoitza	47.564,02
GUZTIRA		265.670,66

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak dauzkan aurreikuspenen arabera, enpresei behar diren zenbatekoak 2005eko azaroa bukatu baino lehen ordaindu ahalko zaizkie, 2004ko lansariei buruzko akordioari dagozkionak barne.

3. Hitzarmenaren kostuak, guztira, 5,47 milioi euro egiten zuen. Zer kontusailetik ordainduko da diru kopuru hori? Nola egin zaio aurre 2004ko atzerapenen -387.000 euro- ordainketari? Zehaztu bitez aurrekontuetan eginiko mugimenduak.

5,47 milioi euroko zenbatekoa lortu da 2005.etik 2008.era bitarterako hitzarmenetik heldu diren kostuei aurre egiteko kalkulatu diren beharren batuketara eginez, horren barne dela 2006., 2007. eta 2008. urteetarako KPlaren % 3ko igoera,

gehi 2004. urterako lansariei buruzko akordioa dela eta kalkulatu den zenbatekoa. Edozein modutan ere, Nafarroako Gobernuaren 2005eko otsailaren 28ko erabakian bertan gehienezkotzat jotzen ziren zenbateko horiek, eta esaten zen lotuta zedela enpresa guztietako itunei atxikitako plantillari buruzko goitik beherako azterketa egin ondoren zehaztu beharreko kopuruei. Halakorik egin ezean, ez luke inolako zentzurik izaneren erabaki horren bitartez Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileari eman zitzaion baime-nak; baimen horren xedea zen "Ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko sektorearen hitzarmena, Nafarroako Gobernuarekin ituna duten titularitate publikoko zentroentzat."

Bestalde, gobernuaren erabaki berak agertzeraren ematen du 2004-2007 urteetarako epe ertain eta luzeko plan ekonomikoak hitzarmen kolektibo horrek ekarritako beharrezkoak betetzeko baliabideak jasotzen dituela. Hartara, 2005. urterako aurrekontu beharrak, gobernuaren erabakiak berak ere adierazten duen bezala, gastuen aurrekontuko 922003-93500-4809-231300 "Ez gaitasuna duten pertsonentzako elkarteekiko itunak eta hitzarmenak" kontusailan jasota daude. 2004. urteko lansariei buruzko akordioa betetzeko behar diren funtsak 922003 aurrekontu-proiektu bereko

kontusailan izaniko soberakinetatik lortuko dira, betiere lotura ekonomikoaren mailari eutsiz, hala-ko moduan non horrek ez duen eraginik izaneren proiektu horrek dituen xedeetan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 27an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Errusiar Federakundea adopzioak bertan behera utzi izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Errusiar Federakundea adopzioak bertan behera utzi izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Errusiar Federakundeak adopzioak bertan behera utzi izanari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

Egindako galderak erantzun baino lehen, esan behar da Familiaren Zuzendaritza Nagusiak eta zehazki bere Nazioarteko Adopziotarako Taldeak, nazioarteko adopzioari buruzko tramitazio prozesuei eragiten dieten aldaketei dagokienez, kontuan izaten dituela jatorrizko herrietan gure herriak dituen ordezkariak diplomatikoak edo Estatuko agintariak emandako informazioak eta horietan oinarritzen dituela bere ekintzak. Beraz, 2005eko urriaren 4an Familiaren Zuzendaritza Nagusian jaso da Errusiar Federakundean adopzioaren egoerari buruzko informazioa, Moskuko Espainiako kontsulatuak emana.

Informazio horren arabera baliteke aipatu herri-nazioarteko adopzioari buruzko lege-aldaketak izatea, hein handi batean adingabekoen adopzioan izandako gertaera larriak direla eta sortu den presioagatik (adingabe bat baino gehiago tratatu txarregatik hil baita).

Aldaketak bide hauetatik doaz:

- Bide publikoaren bidez egiten diren adopzioak debekatzea ("bide libre", NAGEL erabili gabe alegia) Zentzu honetan Gobernuak lege-proiektu berri bat bidaliko du Dumara.

- Nazioarteko adopzioa eskatzen dutenak egoiak diren jakiteko azterketa osagarri bat egitea.

- Familia adoptatzaileek adingabeen egoera psikosozial eta osasuna zein diren jakin dezaten berme gehiago ezartzea.

- Nazioarteko adopzioaren arloan Hagako Ituna berrestea aztertzen ari da.

Informazio hori gorabehera, Errusiako agintariak beti jakinarazi dute "bide libre"aren bidezko tramitazioa baino NAGEL bidez egiten dena nahiago dutela

2004ko hasieran, Nafarroako "Nuevo Futuro" Elkartearen bidez Errusiar Federakundean egindako eskaera berrien tramitazioa aldi baterako eteteak ez zuen inolako zerikusirik izan tramitazio-bidearekin. Etenaldi hori, espedienteak ebazteko tramitazioan dauden erritmo eta igurikapenak adosteko egin zuten autoerregulazio prozesuagatik baino ez zen gertatu.

Azalpen hauek eman ondoren egindako galde-
ra zehatzak erantzun beharra dago:

1. Zenbat adopzio egin diren aurten Errusiar Federakundearen, adieraziz espedientearen noiz jarri zen abian, zer nazioarteko adopzioaren gaitako entitate lankideren bidez (NAGEL, aurrerantzean) egin zen edo, bestela, "bide publikoa" deiturikotik egin zen.

2005ko urriaren 27a arte honako adopzio hauek burutu dira:

Aurrekontuaren onespeneraren data:		Izapidaketa
2004-05-13	Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (bide publikoa)	
2003-11-04	Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (bide publikoa)	
2003-11-06	Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (bide publikoa)	
2003-11-25	Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (bide publikoa)	
2003-04-03	Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (bide publikoa)	
2002-07-03	Nafarroako "Nuevo Futuro" elkartearen	
2003-05-27	Nafarroako "Nuevo Futuro" elkartearen	
2002-11-05	Nafarroako "Nuevo Futuro" elkartearen	
2003-09-09	Nafarroako "Nuevo Futuro" elkartearen	
2003-09-09	Nafarroako "Nuevo Futuro" elkartearen	
2003-11-10	Nafarroako "Nuevo Futuro" elkartearen	
2001-06-10	AAIM	
2002-03-12	AIPAME	

2. Nafarroako zenbat familiek jarri duten abian edo ari diren tramitatzen adopzio bat Errusiar Federakundearen, 2004 eta 2005 urteetan, adieraziz zein NAGELen bidez, entitateari espedientearen igorri ziztaion data eta, espedientearen amaitu bazen, noiz eta zergatik.

Errusiar Federakundera 2004 eta 2005 urteetan nazioarteko adopzioarako bidalitako espedienteak guztira ondoko taulan agertzen dira:

2004

2004-01-07	Ministerioa
2004-01-07	Nuevo Futuro
2004-01-23	ASEFA
2004-01-23	Interadop
2004-01-23	Interadop
2004-01-28	Infancia i Futur
2004-01-29	Ministerioa
2004-01-29	Ministerioa
2004-02-05	Ministerioa

2004-02-06	Interadop
2004-02-06	Interadop
2004-03-04	Adecop
2004-03-04	Interadop
2004-04-28	Ministerioa
2004-05-19	Adecop
2004-05-21	Ministerioa
2004-06-01	Nuevo Futuro
2004-06-02	Nuevo Futuro
2004-06-10	Nuevo Futuro
2004-09-13	Nuevo Futuro
2004-09-13	Nuevo Futuro
2004-09-15	Ministerioa
2004-09-20	Nuevo Futuro
2004-09-21	Nuevo Futuro
2004-09-21	Ministerioa
2004-09-22	Nuevo Futuro
2004-10-05	Ministerioa
2004-10-14	Ministerioa
2004-10-18	Ministerioa
2004-10-18	Ministerioa
2004-11-15	Nuevo Futuro
2004-12-10	Nuevo Futuro
2004-12-15	Ministerioa
2004-12-16	Ministerioa
2004-12-24	Nuevo Futuro
2004-12-24	Nuevo Futuro

2005 (urriaren 27ra arte)

2005-01-27	Nuevo Futuro
2005-02-02	Nuevo Futuro
2005-02-08	Ministerioa
2005-02-09	Nuevo Futuro
2005-02-14	Nuevo Futuro
2005-02-16	Ministerioa
07-03-2005	Nuevo Futuro
2005-04-01	Nuevo Futuro
2005-04-05	Ministerioa
2005-05-05	Ministerioa
2005-05-05	Ministerioa
2005-04-20	Ministerioa
2005-06-06	Nuevo Futuro
2005-06-07	Nuevo Futuro
2005-06-07	Nuevo Futuro
2005-06-07	Nuevo Futuro

2005-06-13	Nuevo Futuro
2005-06-20	Nuevo Futuro
2005-06-23	Nuevo Futuro
2005-06-27	Ministerioa
2005-06-28	Nuevo Futuro
2005-07-01	Nuevo Futuro
2005-07-01	Nuevo Futuro
2005-07-01	Nuevo Futuro
2005-07-27	Ministerioa
2005-08-02	Ministerioa
2005-08-11	Nuevo Futuro
2005-08-19	Nuevo Futuro
2005-09-14	Nuevo Futuro
2005-09-14	Nuevo Futuro
2005-09-27	Nuevo Futuro
2005-10-10	Nuevo Futuro

64 espediente hauetatik 32etan adingabe bat esleitu da.

3. Zein den Errusiar Federakundean “Nuevo Futuro” entitatearen bidez eginiko adopzio batek irauten duena batez beste, eta, beste NAGELen batek ere egiten baditu han adopzioak, horien batez besteko iraupena; eta zein den itxaron zerrenda.

Errusiar Federakundean adopzioak, espediente hara bidaltzen denetik, batz bester urte batez luzatzen dira.

Epe hori dela eta, azpimarratu behar da adopzioarako proiektuak norbanakoenak direla, eta haietarik bakoitzak ezaugarri bereziak dituela. Hortaz, aipatu behar da batez besteko epe horrek ez duela loturarik tramitea bideratzen duen NAGELarekin eta bai eskaera egiten duen bikotearen ezaugarriekin eta bestelako arrazoiekin.

Bestalde, “Nafarroako Nuevo Futuro Elkarteak” NAGELaren bidez Errusiar Federakundera bidalitako espedienteetatik, oraindik 22 esleitu gabe daude

4. Zenbat adopzio egin diren Errusiar Federakundean, eta zer hileroko ordainketa egin zaion “Nuevo Futuro” entitateari 2004 eta 2005 urteetan, adieraziz, kasu bietan, haur bat edo gehiago diren, adina, sexua eta osasun egoera.

2004. urtean, Nafarroan, Errusiar Federakundeko 59 ume adoptatu ziren, hauetako 24 “bide publikoa” erabili; 14 INTERADOPEN bitartez, 12 NUEVO FUTUROren bidez, 4 INFANCIA I FUTUR NAGELarekin, bina ASEFA eta ADECOPEkin eta azkenik bat AAIM NAGELarekin.

Joan diren 2005eko hilabeteetan, 13 adopzio burutu dira Errusiar Federakundean, 6 “Nuevo Futuro”ren bidez, 5 “bide publikoa” erabili, 1 AAIMren bidez eta beste bat AIPAMErekin.

Galdera honen bestelako kontuak, hau da, adingabeen adina, sexua eta osasun egoera, une honetan isilpeko informaziotzat jotzen ditugu. Urteko oroitidazkietan estatistika era orokorrean biltzen da; horrela, Familiaren Zuzendaritza Nagusiak 2004an egindako txostenera jo daiteke.

5. Ea 2005ean tarifa igoerarik baimendu den “Nuevo Futuro” entitatearentzat, eta, hala izan bada, horren zenbatekoa. Ea egia den NAGEL horrek 240 euroko ordainketa gehigarri bat eskatzen duela adopzioarako prestatzeko ikastaroagatik, nahitaezkoa ez den ikastaroa.

Aurten “Nuevo Futuro” Elkarteak nazioarteko adopzio prozesuetan bitartekaritza egiteagatik jasotzen dituen tarifetan ez da inolako aldaketarik baimendu.

Nafarroako “Nuevo Futuro” Elkarteak adopzioaren aurreko ikastaro bat eskaintzen du. Ikastaro honetan interesdunek izena eman dezakete, baina ez da derrigorrezkoa prozesua burutzeko.

6. Zer neurri aurreikusi dituen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak adopzio libreen bidea itxita NAGELen bidez eginiko eskaeretan ziurrenik gertatuko den igoera dela eta.

Errusiar Federakundeko agintarien jarraibidek beti NAGELen bidezko adopzioak lehenetsi dituzte. Horretaz gain, Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren Nazioarteko Adopzioarako Taldearen lana ere, beti norabide horretan joan da. Hala ere, bide publikotik hainbat adopzio bideratu dira, batez ere opporraldietan aldi baterako hemengo familietan egonaldia egin duten Errusiako adingabeekin.

Alde honetatik, lan teknikoa erabili behar da harrera eta nazioarteko adopzio programak bereizteko; izan ere, bietan adingabeen beharrak, motibazioak eta itxaropenak zeharo desberdinak dira.

Beraz, ez dago aurreikusita NAGELen bidez egiten den eskaera kopurua handitzea Errusiar Federakundean gai honi buruzko lege-aurreikuspenak garatzen diren heinean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 4an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, NAGEL direlakoek beren betebeharrak betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak NAGEL direlakoek beren betebeharrak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du NAGEL direlakoek beren betebeharrak betetzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

1. eta 2. Ea Nafarroako Gobernuak "Feyda", "Asociación para el cuidado de la infancia" eta Nafarroako "Nuevo Futuro" Elkarteak NAGELek diziplina askotako talde baten laguntza edo psikologoaren laguntza emateko betebeharrak betetzen edo urratzen duten ba ote dakien. Laguntza hori ematen badute, nola dauden osatuta talde horiek eta zein diren adopzioa eskatu duten familiei harrera egiteko dituzten ordutegiak.

Honen inguruan, esan behar da Nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateen akreditazioa arautzen duen uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuak ezartzen duen betekizunetako bat diziplina arteko talde bat izatea dela, betiere NAGEL horrek Nafarroan duen lan-karga kontuan izanik. Talde hori gutxienez zuzenbideko lizentziatu batek, psikologo batek eta gizarte-laguntzaile batek osatua izan behar da. Langile horiek izan behar dira familia, nerabe eta umeekin gizarte-ekintzetan arituak, haien lan arloetan adituak eta azkenik nazioarteko adopzioari buruzko ezaguera handia izan behar dute.

Beraz, arautegi honek ez du inolaz ere ezartzen Nafarroako NAGELek beren bulegoetan diziplina askotako talde finko bat izan behar dutela. Eta hori ulergarria da NAGEL batzuek eta besteek duten lan-karga guztiz desberdina delako, eta horretaz gain, unearen arabera ere tramitazio eskaeren kopurua nabarmen aldatzen da.

Egun, Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren Nazioarteko Adopzioarako Taldeak badaki akreditazioa duten hiru NAGELek akreditazioa izateko betebeharrak betetzen dituztela. Gainera, haiekiko komunikazioa etengabea da; hori dela eta, aurreikusitakoa betetzen den ala ez eta tramitazio boluena nola aldatzen den ikusita egin beharreko egokitzapenak baloratu daitezke.

"Asociación para el Cuidado de la Infancia-ACI" izeneko elkarteak Nafarroan bere jardura garatzeko badu bost profesionalen osatutako taldea:

- Ekonomista bat ACI elkarteak Aragoan Errioxan eta Nafarroan duen arduraduna dena. Honek Nafarroan taldea zuzentzen eta koordinatzen du, eta familiekin burutu beharreko prozeduraren kudeatzeaz, antolatzeaz eta informazioa emateaz arduratzen da. Era berean, NAGEL honek Zaragozan duen egoitzan Nafarroako Erriberako hala nahi duten eskatzaileak artatzen ditu.

- Zuzenbideko bi lizentziatu, Iruñeko egoitzan lanaldi osoa dutenak.

- Psikologo bat eta gizarte langile bat. Horiek ACIk egoitza nagusian Nafarroarako dituen teknikariak dira, eta erkidego honetan adopzioaren ondoko prestakuntzaz, aholkuak emateaz eta jarraipenaz arduratzen dira.

- Familiei harrera egiteko duten ordutegia da asteleheneetik ostiralera goizeko 09:00etatik 13:00ak arte eta arratsaldeko 17:00etatik 19:30era arte. Bestalde, aipatu behar da familiek tramitazio prozesu osoan telefonoz artatuak izateko aukera dutela.

"Feyda" elkarteak bere jardura Nafarroan garatzeko, betiere NAGELen zerbitzu zentralen elkarlaketan, honako lantaldearen laguntza du:

- Nafarroako NAGELen ordezkari bat.

- Psikologo bat, NAGELen zerbitzu zentraleraino koordinatuta, Nafarroan adopzioaren ondoko jarraipenaz, familiekin burutu beharreko prozeduraren kudeatzeaz, antolakuntzaz eta informatzeaz arduratzen dena.

- Gizarte langile bat eta zuzenbideko lizentziatu bat, aholkuak emateaz eta prestakuntzaz arduratzen direnak.

- Familiei harrera egiteko duten ordutegia da goizeko 10:00etatik 14:00ak arte eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak arte, aste Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezi behin.

Nafarroako Nuevo Futuro elkarteak honako lantaldea du Nafarroan egiten duen bitartekaritza lana aurrera eramateko:

- Zuzenbideko hiru lizentziatu, tramitazioaz eta aholkuak emateaz arduratzen direnak.
- Psikologo bat eta gizarte langile bat, adopzioaren ondoko prestakuntzaz, aholkuak emateaz eta jarraipenaz arduratzen direnak.
- Mediku-pediatra bat, aholkuak ematen eta prestakuntza lanak egiten dituenak.

• Talde honen harrera egiteko ordutegia da, astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 17:00ak arte. Adopzioaren ondoko jarraipenak egiteko orduan kontuan izaten dira umeen eskola-ordutegiak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 4an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, 9/2005 Legearen aplikazioak alargun pentsioen kostua jaistek ekarri duen ondorio ekonomikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak 9/2005 Legearen aplikazioak alargun pentsioen kostua jaistek ekarri duen ondorio ekonomikoari buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentuko-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du 19/2004 Foru Legearen babesean jasotzen diren alarguntza- pentsioetan 9/2005 Legearen aplikazioa eragiten ari den ondorio ekonomikoari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. 9/2005 Legeak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko zazpigarren xedapen iragankorra aldatu zuen (testu bategina ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen). Hortaz, 2005eko irailaren 1etik aurrera SOVI delakoaren prestazioak eta Gizarte Segurantzaren Sistema osatzen duen edozein erregimenek emandako alarguntza-pentsioak bateragarriak dira. Baita sistema horren barruan dauden ordezeko erakundeak ere.

2. Aipatutako data horretatik aurrera aldaketak eragiten die pertsona fisikoen gaineko zerga arautzen duen abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 67. bis artikuluan aipatzen den kuota berezian kenkari baten onuradun direnei. (Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 19/2004 Foru Legearen azken erredakzioa).

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza OrokorraK eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eman duten informazioaren arabera, antzeman da alarguntza-pentsioa jasotzen dutenen artean 531 lagunek kenkaria galduko dutela IPREM eta pentsioaren gutxieneko zenbatekoaren artean dagoen aldearen erruz.

Pertsona horiek alarguntza-pentsioa eta SOVIren prestazioa batera jasotzen dituzte. Hori dela eta, ez dute eskubiderik 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 50.artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko. Horren ondoren, 22/1998 Foru Legearen 67.bis artikuluan 1. idatz-zatian aipatzen den kenkaria jasotzeko eskubiderik ere ez dute. Kenkari hori, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren eskutik alde aurretik jasotzen ari ziren.

3. Pertsona hauek, batez beste, hileko 29,21 euro gutxiago jasoko dituzte, kenkari horiei dagozkie hain zuzen ere.

Kontuan izanik, alde batetik heriotzagatik edo baldintzak ez betetzeagatik hilero bajak sortzen direla eta bestaldetik SOVIren prestazioa eskatzen duten pentsionisten kopurua oraindik handitu daitekeela, kalkulatzeko ahal da 9/2005 Legearen

ondorioz 2005eko irailetik abendura bitarte Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamenduak aurreratutako kenkariagatik 69.996,76 euro gutxiago ordainduko dituela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 20an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Zarrakazteluko oinarrizko eskualdeko larrialdietako osasun garraioaren zerbitzuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Zarrakazteluko oinarrizko eskualdeko larrialdietako osasun garraioaren zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Carcastilloko oinarrizko zonaldeko larrialdietako osasun garraioaren zerbitzuari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Carcastilloko oinarrizko osasun zerbitzuak larrialdiak artatzeko ondoko baliabideak ditu:

- Carcastilloko osasun-etxean, astelehenetik larunbatera, 15:00etatik 22:00etara, eta igandetan 8:00etatik 22:00etara, famili mediku bat eta OLT-

EDU bat egoten dira. Gainerako orduetan, guardia lokalizatuak egiten dira osasun oinarrizko eskualdearen mugen barruan. Sanitarioak kasu larrietan behar den tokira joaten dira; batez besteko distantzia 17,3 km-koa da.

- Medikuntzarako egokitutako anbulantziak honako lekuetan:

- Tafallako suhiltzaileen anbulantzia eta SAMUrena.

- Zangozako suhiltzaileen anbulantzia, "La Nora"rena eta Gurutze Gorriarena.

- Erriberriko DYaren anbulantzia.

- Caparrosoko DYaren anbulantzia.

- Azkoiengo DYaren anbulantzia.

Hori dela eta, Carcastilloko oinarrizko osasun eskualdeko larrialdiei aurre egiteko zerbitzuari egokia deritzogu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 4an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, “La contaminación del pensamiento” erakusketaren kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “La contaminación del pensamiento” erakusketaren kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du “La contaminación del pensamiento” erakusketarekin zerikusia duten

zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Museoak antolatutako “La contaminación del pensamiento. Malagako arte garaikidearen zentroko eskultura bilduma” erakusketaz Fernando Francés jauna arduratu zen. Lan honengatik 3000 euroko ordainsaria jaso zuen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 20an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Esako San Esteban eliza zaharberritzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Esako San Esteban eliza zaharberritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Esako San Esteban elizarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Esako San Esteban eliza zaharberritzeko proiektua Ebroko Konfederazio Hidrografikoak bere osotasunean finantzatu behar du. Egitasmoa Esako urtegia handitzeko proiektuaren barruan

dago, betiere, urtegiko inguruneak (Nafarroa eta Zaragoza) lehengoratzeko neurri zuzentzaileak kontuan harturik. Proiektuak guztira 758.000 euroko aurrekontua du.

Eliza Erdi Arokoa da eta XIII. mendearen hasieran hasi zen eraikitzen. XVI. mendean zenbait berriztapen egin zioten, atea esaterako, eta gangak aro barrokoak dira. Esako San Esteban eliza zaharra interesgarria da batez ere Epistolaren kaperan eta presbiterioan dauden paretetako margolanengatik. Hauek karez erdi ezkutaturik egon dira orain dela urte gutxi aurkitu zituzten arte. Orain arte garbitutako tokietan ikus daitekeen errepertorio ikonografikoa aztertu ondoren, estilo aldetik XVI. mendean koka daitekeena, komenigarritzat jotzen da karea erabat kendu eta margolanak zaharberritzea.

Proposatutako obrak eliz barruko paretetako margolanak garbitu eta tenplua egokitzeko asmoz egin nahi dira. Hori guztia egiteko, zolata aireztatu bat jarri behar da –kapilaritate-hezetasuna kentzeko–, orain dagoen korua eraitsi eta korurako egurrezko forjatu berria egin, baita hara igotzeko eskailera berri bat ere.

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentua, bere aldetik, Ondare Historikoaren Zerbitzuaren bidez berritze lanetan parte hartzen ari da. Alde batetik, barnealdea eta paretetako margolanak berritzeko proiektuak prestatzen, eta bestetik zaharberritze lanak zuzentzen eta ikuskatzen. Hori dela eta, teknikariak astero joaten dira Esako eliza ikustera, bai eta enpresa adjudikazio-hartzailea elizako erretaula nagusiaren kontserbazio eta berriztapen tratamendua egiten ari den tailerrera ere.

Aipatu erretaulari kontserbazio eta berriztapen tratamendu osoa egiten ari zaio: desmuntatzea, desintsektazioa, garbiketa, urre geruzak eta polikromiak finkatzea, hutsuneak berrosatzea, bukaerako babesa ematea eta tenpluko burualdean muntatzea. Erretaula barrokoa da, Iruñeko San Agustín parrokiatik ekarria.

Alboetako erretaulei dagokienez, esan behar da estilo neoklasikokoak direla, eta desmuntatu ondoren, poltsaratze sistema erabiliz xilofagoen kontrako tratamendua eman zaiela. Orain, Esako Udalaren instalazioetan gordeta daude, Iruñeko Artzapezpikutzak nora eraman behar diren erabaki arte.

Era berean, Artzapezpikutza ere elizaren jabe denez, berari dagokio esatea zertarako erabiliko den zaharberritze lanak bukatu ondoren.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 28an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, lansariei buruz egiten dituen estatistiketan sexuaren aldagaia sartzearen inguruan onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak jaunak lansariei buruz egiten dituen estatistiketan sexuaren aldagaia sartzearen inguruan onetsitako erabakia betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras andreak galdera egin du lansariei buruz egiten dituen estatistiketan sexuaren aldagaia sartzearen inguruan onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

2004ko Nafarroako estatistika programak laneko kostuari buruzko hiru lan biltzen ditu. Hau da:

2330 laneko kostuari buruzko inkesta.

2340 soldaten egiturari buruzko inkesta.

2350 laneko kostuen indizeak.

Inkesta horiek guztiak, fase guztietan, Estatistikako Institutu Nazionalaren eskumena dira, eta Nafarroako Estatistika institutuari informazioa zabaltzea baino ez dagokio.

Laneko kostuari buruzko inkesta lau urtean behin egiten da, eta azkena 2000. urtekoa da. Inkesta hori soldaten egiturari buruzko inkestaren orde egiten da –1995. urtean egin zen hura azkeneko–.

Laneko kostuen indizea hiru hilean behin egiten den inkesta da. Inkesta horrek, mailak eta adierazleak ematen ditu, langile eta hil bakoitzeko batez besteko lan kostuari buruz, lanordu bakoitzeko batez besteko lan kostuari buruz eta lanean eta lan egin gabe eman den denborari buruz. Inkesta hori modulu batekin osatzen da. Modulua gehi laneko kostuen indizeen lau hiruhilekoekin, Urteko Lan Kostuari buruzko Inkesta lortzen da.

Inkesta hori da urte bat baino epe laburragoan lan kostuaren maila eta aldaketak neurtzeko dagoen tresna bakarra. Gainera, Europako Banku Zentralak eskatuta, Europako Komunitateetako Estatistika bulegoak (EUROSTAT) euro zonaldeko

estatuei eskatzen dien euroadierazleetakoa bat da. Inkesta, elkarganatzeko nominala egiaztatu ondoren, erabiliko da aztertzeko ea herrialde horiek benetan ari diren hurbiltzen eta ea Europan lan unitateko lan kostuak berdintzen ari diren.

Beraz, indize honek ematen duen informazioa EUROSTATEKek eskatzen duena da, EBko kide diren estatu guztientzat bateratua. Informazio honetan, hiru hilean behin egindakoan ez dago sexuaren aldagaia sarturik, eskakizun bakarra Lan Kostuari buruzko Inkestari egiten baitzaio.

Hortaz, egun eskura dauden estatistika lanean, sexua dela eta lansarrietan izaten diren aldeak ezin dira ezagutu Estatistikako Institutu Nazionalaren Lan Kostuari buruzko Inkestak ezartzen duena baino epe laburragoan.

28/2002 Foru Legearen bidez onartutako 2003-2006 Nafarroako estatistika planaren arabera, Nafarroako Estatistika Institutuak ez du aurreikusita lansarien kostuei buruzko bestelako lanik egitea.

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak, ezartzen du Nafarroako Gobernuak plan horretan agertzen ez diren estatistika lanak egiteko baimena eman dezakeela. Horretaz gain, Estatistika Kontseiluaren funtzionamendua arautzen du. Kontseilua, Gobernuko ordezkariak eta gizarte-talde eta sindikatuak ordezkariak osatzen dute.

Nafarroako Estatistika Institutuarentzat lan estatistikoak onesteko esparrua Nafarroako Estatistika Kontseilua da, eta departamentuetako edo gizarte-taldeetako ordezkariak lan horiek proposatu eta onetsi behar dituzte, betiere kontuan izanik bai interes orokorra bai Institutuak berak dituen baliabideak ere.

Era berean, 2002ko soldaten egiturari buruzko inkestari dagokion informazioa eman zen.

Nafarroako Estatistika Institutuak hartutako neurriari buruz esan behar da aipatutako institutuak ez duela soldaten inguruko inkestari egiten, hauek Estatistikako Institutu Nazionalaren esku-mena direlako.

Auzi hau Espainiako Parlamentuan ere agertu denez eta nazioarteko eta bertako hainbat erakundek eskatu dutenez, EUROSTAT delakoa ere hasi da eskatzen.

Informatzeko betebeharrak betetzeko Estatistikako Institutu Nazionalak ondoko ezaugarriak dituen lana garatu du:

Urteko soldaten egitura: soldaten gaineko dirusarrerak horrela sailkatuta, unitatearen jardue-

ra eta tamaina, sexua, okupazioa, lan kontratu mota, adina eta langilearen nazionalitatearen arabera.

Azkeneko urteetan, Eurostatek soldaten gaineko dirusarrerei buruzko urteko datuetan duen interesa handitu du. Izan ere, urtero eta zuzentasunez jokatuko dela hitzartuta, ondoko informazioa eskatzen du:

– Urteko irabazi gordina, honakoen arabera sailkatuta: lanaldi osoa, lanaldi partziala, (lanaldi osoarekin parekatuta ere bai), sexua, CNAEren atalak eta okupazioak digitu batekin.

– Orduko irabazi gordina, honakoen arabera sailkatuta: lanaldi osoa, lanaldi partziala, (lanaldi osoarekin parekatuta ere bai), sexua, CNAEren atalak eta okupazioak digitu batekin.

Informazio hori, behin Europako Lan Kostuen Indizea ezarrita eta lau urtetik behin egiten diren egitura-inkestetan gehitu nahi direnak araututa, arautu eginen da eta nahitaezkoa izanen da. Gainera, sexua eta okupazioaren araberrako orduko irabaziaren datuak balioko luke “Gender pay gap” egiturazko adierazlea egiteko informazio-iturri bezala; izan ere, enpresei egindako inkestetatik datorren irabaziei buruzko informazioa etxeetan egiten diren inkestetatik datorrena baino fidagarriagozat jotzen da.

Gizarte Segurantzako Afiliazioaren Fitxategi Orokorra eta 190 eredu (PFEZaren konturako atxikipen eta dirusarreraren urteroko laburpena) batera erabiliz, eta lanaldia eta okupazioaren gaineko datuak gehituta –Estatistikako Institutu Nazionalaren Lan Kostuari buruzko Hiruhileko Inkestaren bidez lortzen dira–, behar den informazioa lortuko litzateke. Horretaz gain, urteko batez besteko irabaziari buruzko erabilpen gehigarriak lortuko lirateke, datu hori honakoen arabera sailkatuta egonen bailitzateke: adina, nazionalitatea (atzerritarren jatorrizko herriak bilduz sortzen diren kategoriak kontuan hartuz) eta lan-kontratu mota. Hori guztia, enpresei informazio gehiago eskatu gabe, hau da, informazio berarekin.

Prozedura.

Gizarte Segurantzaren fitxategia lortzea.

Urtero, urtarrilean, aurreko urteko irailaren 30eko Gizarte Segurantzaren Kotizazio Kontuen Fitxategia oinarri hartuta, Lan Kostuari buruzko Hiruhileko Inkesta gaurkotzen da. Behin kotizazio kontuen lagina lortuta, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari eskatuko zaio aurreko fitxategiaren erreferentzia-urteko kotizazio kontuetan altan dauden langileen zerrenda.

Zerrenda horiek oinarri hartuta, eta hainbat kontrol eta arazketa irizpide erabili ondoren, ikerketa honen parte izanen diren langileen lagina hautatzeko markoa lortuko da.

Gainera, Afiliazio Fitxategi Orokorretik hartuta, langile bakoitzaren ondoko informazioa gehituko da:

- IFZ
- Jaiotza-eguna.
- Nazionalitatea
- Sexua
- Altaren data erreala.
- Altaren hasiera-data
- Bajaren data erreala.
- Bajaren hasiera-data
- Lan harreman mota
- Kontratu mota
- Kotizazio taldea

“Okupazioa” eta “ohiko lanordua” aldagaiak lortzea

Zehaztu beharreko hiruhileko bati dagozkion Lan Kostuei buruzko Hiruhileko Inkestaren galdera-sortak bidaltzearekin batera, kotizazio kontu bakoitzean hautatutako langileen zerrendaz eta lanaldia eta okupazioari buruz egindako galderaz osatutako galdera-sorta bat erantsiko da.

Okupazioari buruzko galderak lanpostuaren izena eta dituen eginkizunen nahiz zereginen deskribapena izanen dira. Estatistikako Institutu Nazionalak CNO-94ren bi digituko kodetzea egingo du.

Langileko eta lanorduko batez besteko urteko irabaziak lortzea

Aurreko informazioa eta 190 ereduak gurutzatuta lortzen da. Horrela, “deklaratzailea den IFZ” bakoitzeko (kotizazio kontuen IFZ), hartzailearen IFZren A klabeari dagozkion ordainsariak lortuko

dira (dirutan jasotako guztia, eta gauzatan jasotakoaren balorazioa) eta erregistro bakoitzean beste arlo bat bezala erantsiko dira.

Hau da, erregistro bakoitzarentzat (hartzailea), eskura dagoen informazioaren arabera “deklaratzailea den IFZ”ak aitortu dituen ordainsariak baino ez dira sartuko. Beraz, bi aldagai batera gurutzatzen dira, deklaratzaileraren IFZ eta hartzailearena.

Erregistroak oinarri, kontrol batzuk izanen baitituzte, batez besteko irabaziak lortuko dira, biztanleria guztia kontuan hartuz eta, kontuan hartuz, era berean,, laginari lotutako akatsak.

Nafarroako Estatistika Institutua prozesu honetan parte hartzen ari da Estatistikako Institutu Nazionalarekin informazioa trukatzeko duen akordioaren bidez. Operazio honi dagokion fitxaren arabera, Nafarroako Estatistika Institutuak Nafarroan zergak ordaintzen dituzten enpresetako langileei dagokien lan-zatia egin behar luke; betiere, Nafarroako zerga Ogasunak informazio hori erabiltzeko baimena eman eta gero. Horretarako, probak egin dira 2002ko soldaten egiturari buruzko Inkestaren datuekin, eta emaitza ona izan dute, antzeko informazioa lortu baita bai inkestan bai atxikitzailean zergaren fitxategian.

Une hauetan, Estatistikako Institutu Nazionala, Gizarte Segurantzaren informazioaren arabera, Lan Kostuei buruzko Hiruhileko Inkestaren laginari dagozkion 160.000 langileren okupazioak kodetzen ari da Adostutako plangintzaren arabera 2006ko bigarren hiruhilekoan 2004ko informazioa eskaintzea espero da. Honek Nafarroa ere barne hartuko luke .

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 3an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, NA-150 errepedeko “Urrozko bidegurutzea” izenekoan gertatzen diren istripuen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak NA-150 errepedeko “Urrozko bidegurutzea” izenekoan gertatzen diren istripuen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du NA-150 errepedeko “Urrozko bidegurutzea” izeneko puntu beltzari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Nafarroako errepedeetako puntu beltzek lehenetasuna izan behar dute administrazio publikoan jardunean, bistakoak diren gabeziak zuzentzeko; izan ere, horien kostua –puntu horien istripuen kopuru kezagarria– kalkulazina da.

Nafarroako errepedeetako puntu beltzetako bat “Urrozko bidegurutzea” izenez ezagutzen dena da, eta NA-150 errepedean dago.

Horri buruz, parlamentari honek honako xehetasunak jakin nahi ditu:

Lehena. Puntu horretan izandako istripuei buruzko azken urteotako datuak.

Bigarrena. Departamentu eskudunak puntu beltz horretan gauzatzeko aurreikusitako jarduketak. Obrak hasteko eta amaitzeko datu aurreikus-

pena. Zer aurrekontu kontusailen kargura egingen diren obra horiek.

Erantzuna:

Urrozko bidegurutzea deiturikoa da Iruñetik Agoitzera eta Irunberrira doan NA-150 errepedeko 13+550 k.p.-an dagoen bidegurutzea; hain zuzen ere, aipatutako errepedea eta Urrozetik Errora doan NA-2330 errepedearekin gurutzatzen diren tokia. Biribilgune zatitua da, eta azelerazio eta dezelerazio erriak ditu Irunberriko aldean, ez ordea Iruñekoan; izan ere, Erro ibaiaren gaineko zubia bidegurutzetik oso gertu dago eta horrek eragozten du halako erriak egitea.

Bidegurutzean 60 km orduko abiadura-muga dago ezarrita, eta debekatuta dago aurreratzea zirkulazioaren bi norabideetan. Seinale horizontalen osagarri gisa, seinale bertikalak ere badaude; hain zuzen, abiadura mugak lurrean margotuta daude, soinu bandak daude zoladuran, zirkulazioaren bi norabideetan, eta bidegurutzeko zintarriak margotuta daude.

Nafarroako Foru Komunitateko errepedeen sareko istripu kopuruari buruz egin diren 8 azterlanetatik, aipatu bidegurutzea tarte arriskugarria (TA) izan daitekeela agertzen da horietako lehenengoan, hain zuzen 1998. urtean eginikoan. 1999. urtean, berriz, azterlan horretan gomendatzen ziren seinaleak eta balizak jarri ziren. Lan horien kostua 6.010 eurokoa izan zen. Urte hartaz geroztik eginiko 7 azterlanetan bidegurutze hori ez da agertu istripu ugari tarte gisa (IUT), ezta tarte arriskugarria (TA) gisa ere.

Ondoko laukian jasotzen dira 2001etik 2005eko ekainera arte izandako istripuak. Hala ere, NA-150 errepedeko puntu horretatik iragaten diren ibilgailuen eguneko batez besteko intentsitatea ere jasotzen da.

NA-150 (12+800 al 14+000)

Urtea	Istripu kop.	Hilda-koak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	TIPOLOGIA								Egunez batez besteko intentsitatea	
					Talka abian doan ibilgailu batekin	Talka oztopo batekin	Atzetik jotzea	Errepide-tik ateratzea	Errepide-an iraultzea	Oinezkoa harrapatzea	Animaliak harrapatzea	Bes-tela-koak		
2001	2	1	1	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	3.240
2002	1	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	3.151
2003	1	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0	0	0	3.186
2004	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3.974
2005 (hasta junio)	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	4.434

Istripuen laukian 2005eko ekainera arte izandakoak jasotzen dira, ez baititugu eskuragarri azken hilabete hauetako poliziaren atestatuak. Hori dela eta, bertan ez da islatzen iragan irailaren 3an izandako istripua, non bi ibilgailuk talka egin zuten aurrez aurre eta horietako baten gidaria, 76 urtekoa, hil zen. Aipatu gidariak ez zuen stop seinalea errespetatu. Bestalde, beste ibilgailuan zihazten lau pertsonak zauri arinak izan zituzten.

Gaur egun, ez dago inolako obrarik egiteko asmorik, dauden seinaleak mantentzea besterik.

Honekin batera errepideen ikusizko basetik hartutako irudiak igortzen ditut. Irudi horietan aipa-

tu bidegurutzan eta inguruan –bi errepideetan– dauden seinaleak ikusten ahal dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 27an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Zarrakaztelurekin lotzen duten errepideetako zoladura hobetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Zarrakaztelurekin lotzen duten errepideetako zoladura hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Zarrakaztelu gainerako eskualdeekin lotzen duten errepideak egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Zer asmo zehatz –ekonomikoa eta denborazkoa– du Nafarroako Gobernuak errepide horietako (Pitillas-Santakara; Murillo-Zarrakaztelu; Mélida-Zarrakaztelu) zoladura, bazterbideak eta zabalera hobetzeko?

Erantzuna:

2002-2009 urteetarako bigarren errepide plan zuzendarian aurreikusita dagoenez, ondoko jarduketak egingen dira errepide zati horietan:

1) NA-5330 errepideko Pitillas-Santakara zatia:

Toki-sareko errepide zatia da. 2004. urteko eguneko batez besteko intentsitatea 1.725 ibilgailukoa izan zen, eta horietatik % 10,1 ibilgailu astunak ziren. Errepide zati horrek 6 m-ko zabalera du eta zoladura-egoera hala-moduzkoa.

2002-2009 urteetarako bigarren errepide plan zuzendarian ez da aurreikusten berariazko jarduketarik. Horren ondorioz, errepide zati honetan ohiko zaintza jarduketak soilik egingen dira (zuloak bete eta zorua sendotu) une bakoitzean beharrezkoa den guneetan.

2) NA-124 errepideko Murillo-Zarrakaztelu zatia:

2002-2009 Nafarroako Errepideei buruzko bigarren plan zuzendarian Murillo el Frutoko saihe bidea egitea aurreikusten da. Eraikuntza proiektua jendaurrean jarri eta behin betikoz onetsi da. Halaber, saihe bidea egiteko beharrezkoak diren lursailak desjabetu dira. 2006ko ekitaldiko aurrekontuan horretarako dirurik badago obren lizitazioa egingen da.

Lan hori egiteko hasieran aurreikusitako aurrekontuak 2.312.306,35 milioi jo zuen.

3) NA-5500 errepedeko Melida-Zarrakaztelu zatia:

Toki-sareko NA-5500 errepedeko zatia da, eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hobetzeko lanak egin zituen bertan Errepideei buruzko lehen plan zuzendariaren barruan. Galtzadak 9 m-ko zabalera du, eta zoladura egoera onean dago. 2002-2009 urteetarako bigarren errepede plan zuzendarian ez da aurreikusten jarduketarik egitea errepede zati horretan.

Errepide zati horretan eginiko lanen likidazioa 1.805.001,89 eurokoa izan zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 2an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, enplegurako laguntza programak ezarri zituen 259/1992 Foru Dekretuaren aldaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak enplegurako laguntza programak ezarri zituen 259/1992 Foru Dekretuaren aldaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 10eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du enplegurako laguntza programak ezarri zituen 259/1992 Foru Dekretuaren aldaketari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

a) galdera.

2002/01/01etik 2005/08/29ra bitarte, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 1.616 laguntza eman zituen autonomoen inbertsiorako.

b) galdera.

Aurkeztutako espedienteetan, laguntzen onuradunek norbere konturako jardueran hasi aurretik langabezian emandako batez besteko denbora 4,59 hilabete izan da gizonen kasuan eta 10,17 hilabete emakumeen kasuan.

c) galdera.

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak bilera bat izan zuen legegintzaldi honen hasieran langile autonomoen federazio nazionalaren ordezkariekin.

Osagarri gisa, eta dakizun bezala, CEIN sozietate publikoa lanean ari da sortu zenetik ekintzarako gogoia sustatzen Nafarroan, eta horrek esan nahi du etengabeko harremana dagoela autoenplegurako formulak garatu nahi dituzten pertsona guztiekin, autonomoak izan nahiz ez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 28an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Estatistika Institutuak eginiko “Nafarroako egoera industrial” inkestari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak Estatistika Institutuak eginiko “Nafarroako egoera industrial” inkestari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 10eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du “Nafarroako koiuntura industrial” inkestari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Galdera honek bi atal dauzka, argi eta garbi bereiz daitezkeenak. Alde batetik, parlamentu-ekimen horren zioak jatorria du Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitako Nafarroako Estatistika Institutuak eginiko “Nafarroako koiuntura industrial” inkestan. Koiuntura industrialari buruzko inkesta hori iritzi-inkesta batzuk abiapuntutzat hartuta egiten da. Inkesta horietan sektorearen egoerari buruzko balorazioak jasotzen dira.

Aitzitik, 1., 2. eta 3. galderak industriaren egoerari buruzko datu zehatzen gainekoak dira. Sektorearen bilakaera, ondoren ematen den informazioaren arabera, ona da, eta, horrenbestez, galderaren bidez transmititu nahi den ezkertasunetik urrun dago.

1. eta 2. galderak.

Ondoren espedientei buruzko datuak agertzen dira, eta, honekin batera doan eranskinean, berriz, espediente horiei buruzko informazio osagarria jasotzen da.

Deuseztatze-espedienteak

2004ko urriaren 1etik	28 espediente
2005eko irailaren 30era	596 langile
2003ko urriaren 1etik	41 espediente
2005eko irailaren 30era	904 langile

Etendurak

2004ko urriaren 1etik	
2005eko irailaren 30era	72 espediente
2003ko urriaren 1etik	
2005eko irailaren 30era	45 espediente

Lantokiak irekitzea

2004ko urriaren 1etik	
2005eko irailaren 30era	4.585 lantoki
2003ko urriaren 1etik	
2005eko irailaren 30era	3.919 lantoki

Horri dagokionez, beharrezkoa da ondoko oharrrak egitea: Lehenik eta behin, beharrezkoa da oso garrantzitsua den kontzeptu bat argitzea: enplegu-erregulazioko espedienteak ez dakar, ezinbestean, langileek euren lanpostua galtzea.

Izan ere, enplegu-erregulazioaren barruan beste bi espediente-mota sartzen dira:

a) kontratuen aldi baterako etendura dakartena, eta

b) lan kontratuen behin betiko deuseztatzea berekin dutenak.

Bestalde, garrantzitsua da esatea arestian aipaturiko bi espediente mota horiek (aldi baterako etendura eta behin betikoa) lan arloko agintarien aurrean aurkez daitezkeela enpresaren eta ukitutako langileen ordezkarien arteko adostasunarekin ala akordiorik gabe.

Aldeen arteko adostasuna dagoen kasuetan, lan arloko agintariak ebazpena emanen du deuseztapena edo etendura, kasuan kasu, baimenduz, akordioaren lorpenean iruzurrik, dolorik, derrigortzerik edo eskubide-abusurik ez bada izan behintzat. Halakorik izan balitz, espedientea epai-leari igorriko zaio, auzi-eske bidez.

Horrekin lotuta, etendura espedienteen kopurua handitu egin da; hala ere, azpimarratu behar da enplegu-erregulazio mota horrek berekin dakarrela lanpostuen aldi baterako etendura.

Lanpostuen galera dakarten erregulazio espedienteen bilakaera oso ona izan da aztertutako aldian; izan ere, espediente kopurua murriztu egin da, baita ukitutako langileena ere. Hala, bada, espediente kopurua 41etik 28 izatera pasatu da, eta langileena, berriz, 904tik 596era.

Lantokiak irekitzeari buruzko datuak ere onak dira; argitu beharra dago, dena den, lantokia eta enpresa ez direla sinonimoak; izan ere, enpresa batek lantoki bat baino gehiago izan dezake. Irekitako lantokien kopurua 3.919tik 4.585ra pasatu da.

3. galdera.

Galdera honetan ere huts egin da; izan ere, lan merkatuaren bilakaeraren sentsazio ezkorra ematen du, nahiz eta egiaz adierazleek egoera kontrako dela erakutsi. Oso zaila da galeren balorazio ekonomikoa egitea, eskatzen den moduan, gero eta lanpostu gehiago sortzen ari bada.

Horretaz gain, ulertuko duzunez, ezinezkoa da zure galderari erantzutea, izan ere, "eskulan" kontzeptua ez da enpresa baten emaitzan eragina duen faktore bakarra.

Halatan, enpleguaren bilakaera Nafarroan Estatistikako Institutu Nazionalak hiru hilabetez behin egiten duen biztanleria aktiboaren inkestak jasotzen du. Biztanleria aktiboaren inkesta lan merkatua aztertzeko erreferentziako tresna estatistikoa da Europar Batasunean.

Hala, biztanleria aktiboaren inkestak argi erakusten du galderan aipatzen den aldian biztanleria landuna, hau da, enplegua duena, hazi egin dela. 2003ko urrian Nafarroako biztanleria landuna 244.300 pertsonakoa zen. Urtebete iraganda, biztanleria landuna 275.000 pertsonakoa zen, eta horrek esan nahi du urtebetean 30.700 lanpostu sortu zirela.

Horretaz gain, eta langabeziaren bilakaerari dagokionez, biztanleria aktiboaren inkestaren arabera 15.700 langabe zeuden 2003ko urrian. Urtebete geroago, 15.100 langabe zeuden, hots, 600 langabe gutxiago.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 28an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, Orkoiengo Udalari egin zaizkion errekerimenduei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Orkoiengo Udalari egin zaizkion errekerimenduei buruz egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 24ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Orkoiengo Udalari egin zaizkion errekerimenduei buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Foru Komunitateko administrazioak, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legearen

341 artikulua aipatzen dituen eskakizunak edo inpugnazioak egin ahal izateko, ezinbesteko baldintza da toki entitateek, aipatutako Foru Legearen 345 artikulua agindutakoa betez, beren akordio eta ekintzen kopia edo laburpena Foru Komunitateko administrazioari bidal diezaiotela.

Nafarroako Ezker Batuko taldearen galderak aipatzen dituen "Orkoiengo udalerriko hirigintzaren arloko kudeaketan eginiko lege-hauste ugariak", Comptos Ganberaren txostenaren arabera, "Iturgain S.A." udal hirigintza sozietatetik datoz. Eta Orkoiengo Udalak eta sozietate horrek honen hirigintza jarduketan kopia edo laburpenik ez dutenez bidali, Foru Komunitateko administrazioak ezin izan du inolako eskakizun edo inpugnaziorik egin.

Hala ere, Comptos Ganberaren gai honi buruzko txostena ezagutu ondoren, Toki Administrazioako Departamentua txosten hori eta bertan aipatzen diren lege-haustea egin diren ala ez aztertzen ari da, eta hala balegokio, legezkotasuna berrezartzeko behar den guztia egiteko edo kasuan kasu-ko instantzietara jotzeko prest dago.

Akordioak ez bidaltzeagatik egin ahal izan ez diren kontrolak gorabehera, Foru Komunitateko administrazioak udalari eta noizbait Iturgain S.A. udal hirigintza sozietateari babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenari buruzko informazioa eskatu die.

Gainera, toki jardunen legezkotasunaren kontrola ez da agortzen Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legearen 341 artikulua ematen duen aukerarekin; aitzitik, Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak berak ezartzen duenaren arabera, hirigintza arloan Foru Komunitateko administrazioaren ardura da hirigintza planeamendua koordinatzea eta honen legezkotasuna kontrolatzea.

Arlo honetan, udal plan orokorren behin betiko onespena baimentzea edo ukatzea Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren esku dagoenez, Foru Komunitateko administrazioak plan horiek aztertzen ditu indarrean dagoen legeriari egokituak dauden jakiteko, edo aipatu planeamendu edo bere aldaketan aurka aurkeztu ahal diren gora jotzeko errekurtsioak ebatztea plan horiek berrazter ditzake.

Hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak "Arriurdineta izeneko lurretan Orkoiengo arau subsidiarioen aldaketaren" behin betiko onespeneraren kontra aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ebatzi zuen aldaketa hori deuseztatzeko errekurtsio-egileen asmoa ontzat hartuz, etxebizitza eremuak handitzeko proposamenek indarrean dagoen planeamenduaren oroitidazkian ez baitzuten lekurik. Proposamen horiek planeamenduaren berrikuspen baten barruan egin behar ziren, are gehiago hiru industrialde egiteak hirigintzaren eraginagatik eta 1993tik Orkoienerako indarrean dagoen hirigintza araudiak horri buruz egiten duen denbora aurreikuspenagatik (2003ko abenduaren 1eko Nafarroako Gobernuaren akordioa).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 3an

Toki Administrazioako Kontseilaria Alberto Catalán Higuera jauna

Galdera, ikastetxe publikoetan egiten diren obretako segurtasun neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak ikastetxe publikoetan egiten diren obretako segurtasun neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Mendillorriko "El Lago" eta "Mendigoiti" ikastetxe publikoetan egiten ari diren obretan lan arriskuen arloan hartutako neurriei buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak Eraikuntza lanean segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzko 1627/97 Errege Dekretua betetzen du proiektuetarako laguntzak eta lan zuzendaritzak kontratatzen dituen bitartean. Errege Dekretu horren 3. artikuluan ezartzen denez, beharrezkoa da segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaile bat kontratatzea lanek irauten duten bitartean.

Hezkuntza Departamentuak segurtasuneko koordinatzaile baten laguntza kontratatzen du hala eskatzen duten obra guztietarako, bai proiektua egiteko aldian bai obrak egitekoan. Eginkizun horiek pertsona berak egin ditzake edo ez. Koordinatzailea zuzendaritza fakultatiboko kide da.

Segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile bat kontratatzeaz gain, beharrezkoa da segurtasunari eta osasunari buruzko oinarriko azterlan bat edo segurtasunari eta osasunari buruzko azterlan bat egitea, hurrenez hurren,

lanek aipatu errege dekretuaren 4. edo 5. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

Hezkuntza Departamentuak sustatutako obra guztietan egiten da kasuan kasuko segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana edo segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana burutzeko adjudikazioa, ezinbesteko baldintza baita elkargoaren ikus-onetsia eta udal lizentzia jasotzeko.

Obra kontratatuta dagoenean eta hasi baino lehen, beharrezkoa da kontratistak segurtasun eta osasun plana prestatzea. Plan hori segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak eta administrazio kontratzaileak onetsi behar dute, aipatu errege dekretuaren 7. artikuluan ezartzen denez.

Neurri horiek guztiak nahitaez bete beharrekoak dira; hori dela eta, Hezkuntza Departamentuak zorrotz betetzen ditu, ezinezkoa baita bestelakorik ulertzea.

Iruñeko Udala da Mendillorriko "El Lago" eta "Mendigoiti" ikastetxe publikoetako atarrietako obrak egiten ari dena, bera baita higiezinaren jabea, eta, horrenbestez, berari dagokio aipatu obraren segurtasuna eta prebentzioa kontrolatzea.

Hezkuntza Departamentuak "Mendigoiti" ikastetxeko zuzendariaren bidez jakin zuen bi gurasok idazki bat aurkeztu zutela, eta horren bidez salatu

zutela obrak egiten ari ziren langileek ikasleen segurtasun fisikoarentzako arrisku egoerak sortzen zituztela.

Urriaren 5ean, "Mendigoiti" ikastetxeko zuzendariak guraso horiek aurkeztutako idazkia igorri zien departamentuari eta Iruñeko Udaleko arlo horretako zinegotziari.

Urriaren 6an Iruñeko Udalak Hezkuntza Departamentura igorritako txostenean azaltzen denez, obraren zuzendaritza fakultatiboak adierazi zuen beharrezkoak diren segurtasun neurriak betetzen ari direla. Halaber, argitu zuen "egunkarietan agertutako argazkiei dagokienez, erakusten duten ikuspegiak zalantzak sor ditzakeela; izan ere, ematen du habea umeen gainean zintzilikatuta dagoela, baina egiaz zazpi bat metrora dago proiektzio horizontalean. Saskiaren argazkiari buruz, ematen du, halaber, hori ere umeen gainean dagoela, baina egiaz hesitik gertueneko puntutik metro pare batera dago proiektzio horizontalean". Halaber, adierazten zuen " inolaz ere ez dela espazio publikorik hartu, ez habeekin, ez jasomakinaren saskiarekin".

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 7an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitalean fisioterapiako praktikak egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Tuterako Reina Sofia Ospitalean fisioterapiako praktikak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 24ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako

Reina Sofia Ospitalean fisioterapiako praktikak egiteari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuak Tuterako Reina Sofia Ospitaleko bosgarren solairua, egun erabili gabe dagoena, Hezkuntza Departamentuaren eskueran utzi zuen.

Fisioterapia irakasteko behar diren bitarteko eta baliabideak Erriberako Nafarroako Unibertsitate Publikoak definitu beharko ditu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 11an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, NAOrentzat kalitate ziurtagiria lortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak NAOrentzat kalitate ziurtagiria lortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 24ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du NAOrentzat kalitate ziurtagiria lortzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

2000ko uztailan sortu zenetik, egungo Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzua lanean ari da kalitatearen kultura izenda daitekeenaren barruan.

Horrek esan nahi du erabateko kalitatea bilatzen dela eta horretarako kalitatearen oinarri direnak erabiltzen direla: bezeroa asebetetzea, pertsonen eta zuzendaritzaren konpromisoa eta atxikipena, lana proiektuen bidez egitea, neurtzea ebaluatzea eta etengabe hobetzen. Eta hori guztia ahalik eta kostu txikienarekin. Lan ildo horretatik, eta berriak izateagatik, ondoko gertaerek merezi dute aipamena: gaztelaniatik euskarara itzultzen laguntzeko, TRADOS izeneko programa erostea eta ezartzea; Nafarroako Aldizkari Ofiziala arautzen duen maiatzaren 19ko 115/2003 Foru Dekretua onestea; 2003ko udazkenetik aurrera "sinadura digitala" bezala ezagutu ohi den Komunikazio Elektroniko Segurua erabiltzea Nafarroako Aldizkari Ofizialera bidalketak egiteko (horrek esan nahi du bidalketetan papera erabiltzeari utzi eta prozesu osoan denbora nabarmen aurrezte); maiatzaren 19ko 115/2003 Foru Dekretua garatzen duen otsailaren 5eko 4/2004 Foru Agindua onestea, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak emana; 2004ko martxoan Nafarroako Aldizkari Ofizialaren kontsulta, harpidetza, araudia eta iragarriak jartzeari buruzko liburua argitaratzea, non administrazio agiriak osatzeko arauak buruzko eta

Nafarroako Aldizkari Ofizialaren web orrian modu iraunkorrean sartzeari buruzko oinarrizko zenbait ideia ematen baitira; 2004ko ekainetik justizia administrazioetik datozen agiriak posta elektronikoren bidez jasotzea (modu hau gure herrian aitzindaria dena); 2005eko apirilean SORBONA (Nafarroako Aldizkari Ofiziala antolatzeko sistema) izeneko aplikazio informatikoa ezartzea, argitaratze prozesu osoa kontrolatzen duen "workflow" edo lan fluxuen datu base modernoa dena, eta hau berebiziko aurrerapausoa da aldizkariaren kudeaketan.

Nahiz eta legegintzaldiaren hasieran aipatu prozesua kalitate ziurtagiria lortuta bukatze asmoa iragarri, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren zerbitzuen eraginkortasuna frogatzeko ISO 9001:2000 ziurtagiria gogoan gurela eta egun politika publikoa eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeke Foru Legearen proiektua tramitazioan

dagoenez, komenigarriagoa ikusi da testuaren behin betiko onespeneren zain egotea Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren gidaritza-pean eta honen koordinazioaren bidez dauden aukera desberdinak aztertzeke, betiere aipatu lege horren balizko ezarpenari begira.

Gobernuak dituen Nafarroako Aldizkari Ofizialaren argitaratze epeak betetzeari buruzko datuei dagokienez; baldintzak, garaia eta sartutako agiri kopurua zein den, epearen betetzea ehuneko 93 eta ehuneko 100 bitartekoa da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 11n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, gaur egun Sakanan dauden industrialdeen betetze mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak gaur egun Sakanan dauden industrialdeen betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 24ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Sakanan dauden industrialdeen betetze mailari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuo Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. galdera.

Sakanako eskualdean ez dago ia lurzoru industrial librerik eta eskualdeko industrialdeak beteta daude.

Departamentu honek ez du udalerrien egoerari buruzko datu xeherik, baina badakigu Sakanako Enpresaburuen Elkarteak egin duela gai horri buruzko azterlan bat.

2. galdera.

Joan zen maiatzaren 18an, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak, ukitutako udal guztiei informazioa eman ondoren, eskatu zion Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari 2001ean aurkeztutako udalez gaindiko planaren tramitazioari berriz ekin ziezaion, behin betiko onespenera lortzeko.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eskatu digu erantzun ditzagun alde horretako udalek bere garaian aurkeztu zuten industria garapeneren ereduari buruzko alegazioak.

3. galdera.

Poligonoa garatzeko balizko epe eta aurreikuspenak direla eta, lurzorua kalifikatu eta jarduketari babes legala emanen dion proiektu sektorialaren behin betiko onespenera beharko da. Ondoren, adostu beharko da lurzoruaren erosketak eta urbanizazio proiektua tramitatu.

Udalez gaindiko plana urte hau amaitu aurretik behin betikoz onesten bada, eta lurzoruaren erosketa adosteko eta urbanizazio proiektua tramitatze-ko sei bat hilabete beharko direla kontuan harturik, urbanizazio lanak 2006ko uda amaitu aurretik has daitezke eta poligonoaren lehen fase operatiboa amaiturik egon 2007 amaitu baino lehen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 11n

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, haur eskola eta haurtzaindegi deiturikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak haur eskola eta haurtzaindegi deiturikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 31ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 23n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak haur eskolei eta haurtzaindegiei buruzko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako ikastetxe pribatuei dagokienez, ikastetxe horiek irekitzeko baimena ez da Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoa, ikastetxeak

dauden herrietako udalena baizik. Hori dela eta, departamentuan ez dago ikastetxe horiei buruz eskatzen diren datuak jasotzen dituen erregistrorik.

Horrenbestez, kasuan kasuko udalek Otik 3 urtera bitarteko haurren ikastetxeentzat ezartzen dituzten baldintzak betetzen diren ikuskatzeko, kontrolatzeko eta zehapenak ezartzeko agintaritza eskuduna irekitze baimenak ematen dituen bera da.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko Lege Organikoa aldarrikatu zenetik, ez da izan arau garapenik ikastetxe publiko eta itunduetako urtebeteko edo 2 urteko umeen ikasgelen sorrera eta funtzionamendua oro har arautzeko.

Hezkuntza Departamentuak haur hezkuntzako lehen zikloaren alderdi guztiak arautuko ditu hezkuntzari buruzko lege organiko berrian xedatzen dena oinarritzat hartuta.

Titulartasun publikoko Otik 3 urtera bitarteko ikastetxe publikoei dagokienez, hauek dira eskatutako datuak:

**OTIK 3 URTERA BITARTEKO HAURREI LAGUNTZA EMATEKO UDAL IKASTETXEAK, HEZKUNTZA
DEPARTAMENTUAK FINANTZATUTAKOAK 2005KO IRAILAREKO 41/2005 FORU AGINDUA**

Herria	Ikastetxearen izena	Kudeaketa mota	Unitate kopurua	Tokiak	Matrikulatuta ko haurrak	Jantokia	HPBko unitateak	Hizkuntza eredia
Ablitas	MI COLE Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	36	34	ez		Gaztelania
Allo	ALLOKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	2	24	22	bai	1	Gaztelania
Altsasu	Altsasuko Udal Haurtzaindegia	Zuzena	4	56	56	ez		Euskara
Antsoain	SAN CRISTOBAL Udal Ikastetxea	Zuzena	7	84	83	bai	1	Mistoa
Agoitz	AGOIZKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	4	46	46	bai		Mistoa
Azagra	AZAGRAKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	4	56	50	ez		Gaztelania
Barañain	BARAÑAIN	Zuzena	8	116	116	bai		Mistoa
Baztan	Baztango Haurtzaindegia	Zeharkakoa	4	56	50	bai		Euskara
Bera	BERAKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	5	58	54	bai	1	Euskara
Berriozar	BERRIOZAR IRUÑALDE Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	9	112	112	bai	1	Mistoa
Berriozar	BERRIOZAR RECALDE Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	6	84	84	ez	1	Mistoa
Betelu	Sorgintxo Haur Eskola	Zeharkakoa	2	20	20	bai		Euskara
Buñuel	BUÑUELGO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	30	30	bai		Gaztelania
Cabanillas	MONTESORI Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	36	26	ez		Gaztelania
Zarrakaztelu	ZARRAKAZTELUKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	42	41	bai		Gaztelania
Cascante	GORRIA Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	4	56	56	ez		Gaztelania
Castejón	GARABATOS Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	42	42	ez		Gaztelania
Oltza Zendea	OLTZAKO Udal Ikastetxea	Zuzena	5	58	56	bai		Mistoa
Cintruéñigo	CAPUCHILANDIA Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	8	102	100	bai		Gaztelania
Cortes	CORTESKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	2	24	24	bai	1	Gaztelania
Eguesibar	EGUESIBARKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	7	80	80	bai	1	Ingelesa
Lizarra	LIZARRAKO Udal Ikastetxea	Zuzena	6	72	56	bai		Mistoa
Fontellas	FONTELLASKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	2	20	20	bai	1	Gaztelania
Funes	FUNESKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	36	36	ez	1	Gaztelania
Uharte	URRATS Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	10	104	100	bai	1	Mistoa
Uharte-Esteribar	Uharte-Esteribarko udal ikastetxea	Zeharkakoa	2	28	18	bai		Euskara
Larraga	GATOPARDO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	42	30	ez		Gaztelania
Leitza	LEITZAKO Udal Ikastetxea	Zuzena	3	42	37	ez		Euskara
Lekunberri	LEKUNBERRIKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	5	58	53	bai		Euskara
Lodosa	LODOSAKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	36	30	ez		Gaztelania
Irunberri	IRUNBERRIKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	2	20	16	bai		Gaztelania
Orkoien	OSTADAR Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	6	72	72	bai		Mistoa
Iruña	EGUNSENTI Udal Ikastetxea	Zuzena	8	93	82	bai	1	Euskara
Iruña	HELLO ROCHAPEA Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	12	140	123	bai		Ingelesa
Iruña	MENDILLORRIKO Udal Ikastetxea	Zuzena	10	116	98	bai	2	Gaztelania
Iruña	HAURTZARO Udal Ikastetxea	Zuzena	8	93	82	bai	1	Gaztelania
Iruña	ROTXAPEAKO Udal Ikastetxea	Zuzena	8	93	82	bai	1	Gaztelania
Iruña	PRINTZEAREN HARRESI Udal Ikastetxea	Zuzena	8	100	86	bai		Gaztelania
Iruña	ARROSADIako Udal Ikastetxea	Zuzena	4	32	28	bai		Gaztelania
Iruña	DONIBANEKO Udal Ikastetxea	Zuzena	11	124	109	bai	1	Gaztelania

Herria	Ikastetxearen izena	Kudeaketa mota	Unitate kopurua	Tokiak	Matrikulatutako haurrak	Jantokia	HPBko unitateak	Hizkuntza eredia
Iruña	MENDEBALDEAKO Udal Ikastetxea	Zuzena	8	93	82	bai	1	Gaztelania
Iruña	IZARTEGI Udal Ikastetxea	Zuzena	8	93	82	bai		Euskara
Azkoien	AZKOIEN Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	7	84	84	bai		Gaztelania
Gares	TXORI Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	4	56	53	ez		Gaztelania
Ribaforada	RIBAFORADAKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	5	58	54	bai	1	Gaztelania
San Adrián	SANTAS RELIQUIAS Udal Ikastetxea	Zuzena	5	64	63	bai		Gaztelania
Zangoza	ZANGOZAKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	6	72	68	bai		Gaztelania
Sartaguda	SARTAGUDAKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	1	10	10	ez		Gaztelania
Sesma	SESMAKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	1	14	14	ez		Gaztelania
Tafalla	AGOIZKO Udal Ikastetxea	Zuzena	10	124	124	bai	1	Mistoa
Tutera	SANTA ANA Udal Ikastetxea	Zuzena	8	100	81	bai		Gaztelania
Tutera	MARIA REINA Udal Ikastetxea	Zuzena	8	100	81	bai	2	Gaztelania
Ultzama	ULTZAMA Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	36	35	bai	1	Euskara
Arangurengo ibarra	KULUXKA Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	14	144	143	bai		Mistoa
Erroibar	ERROIBARKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	2	24	18	bai		Euskara
Erronkari	ERRONKARIKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	1	14	10	ez		Gaztelania
Valtierra	VALTIERRAKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	3	36	29	ez		Gaztelania
Viana	JAIME GARCIA ORIO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	4	42	38	bai	1	Gaztelania
Villafranca	PASITOS Udal Ikastetxera	Zeharkakoa	4	50	50	bai	1	Gaztelania
Atarrabia	AMALUR Udal Ikastetxea	Zuzena	12	154	125	bai		Mistoa
Zizur Nagusia	ZIZUR NAGUSIKO Udal Ikastetxea	Zeharkakoa	6	72	72	bai	1	Mistoa

HAURRENTZAKO ZENTROAK

Herria	Ikastetxearen izena	Kudeaketa mota	Unitate kopurua	Tokiak	Matrikulatutako haurrak	Jantokia	HPBko unitateak	Hizkuntza eredia
Iruña	Santa Teresa	Zuzena	6	57	57	bai		Gaztelania
Iruña	San Jorge	Zuzena	7	74	74	bai	1	Gaztelania
Iruña	Ninia-Etxea	Zuzena	8	80	80	bai	1	Gaztelania
Iruña	Nuestra Señora de Roncesvalles	Zuzena	5	45	45	bai		Gaztelania
Iruña	Nuestra Señora de los Angeles	Zuzena	6	58	58	bai		Gaztelania
Burlata	Egusentí	Zuzena	8	82	82	bai	1	Gaztelania
Lizarra	Izarra	Zuzena	7	66	66	bai		Gaztelania
Corella	Niño Jesús	Zuzena	9	97	97	bai	1	Gaztelania
Gutzira			56	559	559		4	

Udal titulartasuneko ikastetxeek Hezkuntza Departamentuak horiek finantzatzeko aurreikusita dituen itunetara bildu nahi izanez gero, ondoko administrazio betekizunak bete beharko dituzte, 41/2005 Foru Aginduaren 1. idatz-zatiko 2. puntuaren ezartzen denez:

“Toki entitateek, hitzarmena sinatu nahi badute, Hezkuntza Departamentuko kontseilariari bidali beharreko eskabide orri bat erabiliko dute, eta agiri hauek erantsiko:

– Zerbitzuaren titularrak udala dela egiaztatzea.

– Toki entitatearen ziurtagiria, eremuek eta instalazioek osasun, higie eta segurtasun arloan indarra duen araudiko baldintzak betetzen dituela frogatzeko.

– Toki entitateko idazkariaren ziurtagiria, ikastetxean matrikulatutako haurren izenen zerrenda, jaiotegunak eta dagozkien tarifak azaltzen dituen.

– Hezitzaileen eta zerbitzuetako langileen izenen zerrenda.. Beren lan egoera eta titulazioa egiaztatzea.”

Itunak sinatzeko betekizunei dagokienez, aipatu 41/2005 Foru Aginduaren 1. idatz-zatiko 7. puntu hau ezartzen da: “Hezkuntza Departamentuak hitzarmenak sinatu ahalko ditu kudeaketa eta ekipamendurako, Orik 3 urtera bitarteko haurrentzako ikastetxeen titularrak diren toki entitateekin, baldin eta araudi honetako baldintzak betetzen badituzte:

7.1.1. Ikastetxeen titularrak udalak izanen dira

7.1.2. Instalazioak:

– Hezkuntzarako baizik ez diren instalazioetan kokatzea, kanpotik sartzeko ate propioarekin.

– Unitate baterako edo bitarako areto bat, gutxienez 1,5 m haur bakoitzeko.

– 2 urtetik beherako haurrentzako aretoek atsedean eta higiearako eremu bereziak izanen dituzte.

– Erabilera anitzeko areto bat, 3 unitate baino gehiago eta jantoki zerbitzua duten ikastetxeetan.

– Janariak prestatzeko eremu egoki bat jantoki zerbitzua dagoenean edo urtebetekoak baino txikiagoak diren haurrak daudenean, eta bertan indarra duen araudiak zehazten dituen ekipamenduak sartzeko tokia.

– Haurrek bakarrik erabiliko dituzten komunak eta higie zein osasun arloko zerbitzuak, ikastetxeko haur kopuruak eskatzen duen bezainbeste, eta instalazioak haurren ezaugarrietara egokituak.

– Jolaserako eremu ireki bat. Salbuespenez eskola eremutik kanpo egon daiteke, hurbil-hurbilean, haurren segurtasuna bermatzen bada betiere.

– Langileendako komunak

– Zuzendaritza/idazkaritzako bulego bat.

7.2. Ekipamendua:

– Ekipamendurako proiektua aurkeztu behar da, funtzionala, ikastetxearen ezaugarri eta beharretarako egokia eta segurtasuneko araudia betetzen duena.

7.3. Langileen betebeharrak:

7.3.1. Titulazioa: indarra duen araudian ezarritako titulazioetakoren bat izan beharko dute hezitzaileak.

7.3.2. Hezkuntza taldeko profesionalen kopurua unitate kopurua gehi bat izanen da, ratio hauen arabera:

– Urtebetetik beherako haurren unitateak: 1/8.

– Urtebetetik bi urtera bitarteko haurrendako unitateak: 1/12.

– Bi urtetik 3 urtera bitarteko haurrendako unitateak: 1/16.

Ikastetxearen antolaketa eskatzen duenean adin desberdineko haurrak elkartu ahalko dira, ratio hauen arabera unitateetan:

– 0 eta urte 1eko haurren unitateak: 1/7

– Urte 1 eta 2ko haurren unitateak: 1/14.

– 0, 1 eta 2 urteko haurren unitateak: 1/10.

7.3.3. Hezkuntza premia bereziak dituzten haurrek sarbide zuzena izanen dute, ezarritako ratioen gainetik. Hezkuntza Departamentuak geografikoki antolatuko du hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eta laguntzako hezitzaileen banaketa eta kokapena; hezitzaile bakoitza gehienez ere 3 hurrez ardura daiteke.

7.3.4. Hezkuntza taldeko profesionaletako batek zuzendaritza lana eginen du.

7.3.5. Ikastetxean zerbitzuetako langileak izanen dira, dauden unitateetarako eta eskaintzen diren zerbitzuetarako behar beste, erabaki honetako I. eranskinetako moduluetan ezarritakoaren arabera.”

Hezkuntza Departamentuko Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak eta Hezkuntza Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuak egiaztatuko dituzte Orik 3 urtera bitarteko haurrentzako udal ikastetxeek bete behar dituzten admi-

nistrazio betekizunak eta baldintzak, bi aldeek ituna sinatu aurretik.

Ratioak arestian aipatutakoak dira eta 41/255 Foru Aginduan ezarrita daude; hala ere, udal batzuek, hala nola Iruñekoak eta Tuterakoak, ratio txikiagoak aplikatzen dituzte eta bete gabeko postuen kostua bere gain hartzen dute.

Ikastetxe hauetara joaten diren haurrak egunean 8 ordu gehienez ere egoten ahal dira bertan, halaxe ezartzen baita 41/2005 Foru Aginduaren 8 puntuan.

2005/2006 ikasturtean familiek ordaindu beharreko urteko tarifak martxoaren 1eko 171/2005 Ebazpenean ezarrita daude. Tarifa horiek familiaren dirusarreraren eta ikastetxeko ordutegiko moduluaren (egun osoa, erdia edo ordutegi murriztua) arabera kalkulatu dira.

GEHIENEZKO URTEKO TARIFAK		EUROAK
Eskolatzea	Ordutegi osoko unitateak (7 orduko ordutegia)	1.056
	Ordutegi murriztuko unitateak (6 orduko ordutegia)	979
	Ordutegi erdiko unitateak (4 orduko ordutegia)	682
Jantokia	Gehienezko tarifa	935

Tarifak hamalau hilabetetan banatuta ordainduko dira. Hona hemen gehienezko hilabeteko tarifak:

GEHIENEZKO HILABETEKO TARIFAK		EUROAK
Eskolatzea	Ordutegi osoko unitateak (7 orduko ordutegia)	96
	Ordutegi murriztuko unitateak (6 orduko ordutegia)	89
	Ordutegi erdiko unitateak (4 orduko ordutegia)	62
Jantokia	Gehienezko tarifa	85

Aurreko taulan ezarritako tarifei murriztapena aplikatuko zaizkie familia unitateko kideen per cápita errentaren arabera. Familiak ordaindu beharreko tarifa taula honi jarraikiz kalkulatu da:

ERRENTA-TARTEAK		ESKOLATZEA			JANTOKIA	ESKOLATZEA GEHI JANTOKIA		
FAMILIAREN PER CÁPITA ERRENTA		ORDUTEGI MOTA				ORDUTEGI MOTA		
NONDIK	NORA	7 H	6 H	4 H		7 H	6 H	4 H
Baino gutxiago	3.318	13	12	9	33	46	45	42
	3.319	30	27	19	37	67	64	56
	5.311	50	46	31	56	106	102	87
	6.639	67	62	43	59	126	121	102
	7.966	76	71	50	70	146	141	120
Baino gehiago	9.293	96	89	62	85	181	174	147

Aipaturiko alderdiak arautzen dituen Foru legea aplikatzen denetik ez da espedienterik ireki, ezta zehapenik ezarri ere.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 14an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, gizarte-bazterkeriaren aurkako planaren emaitzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak gizarte-bazterkeriaren aurkako planaren emaitzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 31ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 23n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du gizarte bazterkeriaren aurkako planaren emaitzei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Gizarte-bazterkeriaren aurkako plana aho batez onetsi zen 1998. urtean eta indarrean egonen da aurtengo abendura arte. Lortutako emaitza eskasak direla eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Egin al da aipatu planaren ebaluazioa egiteko laguntzarako kontratua esleitzeko lehiaketa arautuko duen administrazio espedientea?

Dagoeneko espediente administratiboa egin da, eta Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiak emandako uztailaren 13ko 220/2005 Ebazpenaren bidez, gizarte-bazterkeriaren aurkako plana ebaluatzeko kontratua Datlan S.L.enpresari esleitu zaio

2. Hala bada, zein izan dira ebaluazioaren ondorio nagusiak?

Honen inguruan esan behar da esleitutako laguntza-kontratua betetzeko epea 2005eko abenduaren 31n bukatuko dela; beraz, data hori pasatu arte departamentuak ez ditu edukiko egindako ebaluazioaren emaitzak. Hori dela eta, ez dut ulertzen zertan oinarritu den parlamentaria, gaur den egunean, planak emaitza eskasak izan dituela esateko.

3. Ba al du departamentuak plan berri bat idazteko asmorik?

Gizarte Ongizate Departamentuak, galderan aipatzen denez, plan berri bat idazten hasteko asmoa du. Ebaluazioari buruzko azterlanak bilduko dituen ondorioek eta departamentuak azterlan horretaz egingo duen azterketak planaren edukia erabakiko dute.

4. Hala bada, aztertu al da Nafarroako baztertuen gaur egungo errealitatea, plan berriaren oinarri izan dadin?

Azterlan hori, esan dudan bezala, gauzatzen ari da, agindutako ebaluazioaren helburuetako bat baita; beraz, kontratua betetzeko epea bukatutakoan azterlana prest egongo da. Horretaz gain, esan behar dut gizarte-bazterkeriaren aurkako planak aipatzen zituen talde guztiez gain, azterlanak etxerik gabeei buruz eta prostituzioan aritzen direnei buruzko berriazko ebaluazio bat ere egingo duela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 18an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, ezgaitasunak dituzten pertsoneri laguntzeko zentroak 2006ko aurrekontuetan sartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak ezgaitasunak dituzten pertsoneri laguntzeko zentroak 2006ko aurrekontuetan sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 23n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du 2006ko aurrekontuen proiektuan ezgaitasunak dituzten pertsonentzako zaintza zentroak sartzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

2006ko aurrekontuen proiektuan, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako elkarteekin itun eta hitzarmenen inguruko kontusailean, aurreikusirik al dago gaur, 2005eko urriaren 27an, Nafarroan ezgaitasunak dituzten pertsonentzako zentrozen lan hitzarmenean sarturik ez daudenak bertan sartzea?

Honi buruz esan behar da, Departamenduaren ustez, galderak aipamen egiten diola Nafarroako Foru Komunitateko "ezgaitasuna duten pertsoneri

laguntzeko titularitate publikoko zentro itunduen" sektorerako lan-hitzarmen kolektiboari, zeinaren bidez arautzen diren ezgaitasuna duten pertsoneri laguntza ematen dieten Nafarroako Gobernuaren zentroak kudeatzen dituzten entitateen eta haien langileen arteko lan harremanak, eta zehazkiago, galdera dela, ea aplikazio-eremua zabaldu eta titularitate publikoko zentroak kudeatzen ez dituzten arren, ezgaitasunen arloan plazak erreserbatu eta betetzeko Nafarroako Gobernuarekin itunak sinatu dituzten entitateei ere hitzarmen hori aplikatzeko asmorik ba ote dagoen.

Horri dagokionez esan beharra dago aukera hori ez dela aztertu Departamentu honek prestatu duen aurrekonturako aurreproiektuan; hala ere, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen aurreproiektuan kasuko kontusaila ezarrita, erabat betetzen da bai gai honen inguruan 2005eko otsailaren 28an Nafarroako Gobernuaren Akordioak erabakitakoa, bai bere garaian parlamentuak onetsi zuen mozioa ere. Hori guztia gorabehera, agerikoa denez, langileekin aipatu hitzarmenarekin bat egitea adosten duten entitateek aukera hori zabalik izanen dute.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 18an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Aldave egoitzaren lokaletan paratu den eguneko zentroari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Aldave egoitzaren lokaletan paratu den eguneko zentroari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 23n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du Carmen Aldave egoitzaren lokaletan paratu den eguneko zentroari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Ba al dago itunik Carmen Aldave egoitzaren lokaletan ezarritako eguneko zentroarekin? 2. Baitzekoan, erabiltzaileentzako zenbat toki dago itundurik? Zenbat langile dago aurreikusirik itunaren barruan? 3. Itun horretarako zer aurrekontu baimendu, xedatu eta bete da 2005eko ekitaldi ekonomikoan?

Egindako galderei erantzuteko, esan behar da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez duela inolako itunik sinatu Carmen Aldave egoitzako eguneko zentroan plazak izateko. Horri dagokionez, kontuan izan behar da Carmen Aldave egoitzak, Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiak emandako irailaren 10eko 561/2004 Ebazpenaren bidez, baimena duela elbarriak zaintzeko zentro

bezala funtzionatzeko, eta ez eguneko zentro bezala aritzeko.

Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak –azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen du– ematen duen definizioaren arabera, elbarriak zaintzeko zentroa da beren kalte larriengatik eta ahal den neurrian okerrera jo dezaten saihesteko tratamendu berezituak eta etengabeko errehabilitazioa behar dituzten elbarriak zaintzeko eta laguntzeko zentroa. Foru Dekretuak berak esaten duenez, zentro hauek laguntza integrala eman beharko dute, eta ondoko espezialitateetako zerbitzu profesionalak, berezkoak, itunduak edo publikoak izan beharko dituzte: medikuntza, erizaintza, fisioterapia, psikopedagogia, gizarte lana eta lan terapia.

Elbarriak zaintzeko Iruñeko Carmen Aldave zentroan 40 toki erreserbatu eta betetzeko 2004ko irailaren 15ean Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eta Aspace Navarra Residencial fundazioak sinaturiko kontratuak arestian esandako ezaugarriak ditu.

Beraz, egindako lehen galderaren erantzuna ezezkoa izanik, ez da beharrezkoa egindako beste galdereei erantzutea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 18an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, 0-3 urteko haurrentzako hezkuntza-zerbitzu pribatuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak 0-3 urteko haurrentzako hezkuntza-zerbitzu pribatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 31ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera bat egin du Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako hezkuntza zerbitzu pribatuei buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako ikastetxe pribatuei dagokienez, ikastetxe horiek irekitzeko baimena ez da Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoa, ikastetxeak dauden herrietako udalena baizik. Hori dela eta, departamentuan ez dago ikastetxe horiei buruz

eskatzen diren datuak jasotzen dituen erregistrorik.

Horrenbestez, kasuan kasuko udalek Otik 3 urtera bitarteko haurren ikastetxeentzat ezartzen dituzten baldintzak betetzen diren ikuskatzeko, kontrolatzeko eta zehapenak ezartzeko agintaritzaren eskuduna irekitze baimenak ematen dituen bera da.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorriari buruzko urriaren 3ko Lege Organikoa aldarrikatu zenetik, ez da izan arau garapenik ikastetxe publiko eta itunduetako urtebeteko edo 2 urteko umeen ikasgelen sorrera eta funtzionamendua oro har arautzeko.

Hezkuntza Departamentuak haur hezkuntzako lehen zikloaren alderdi guztiak arautuko ditu hezkuntzari buruzko lege organiko berriaren xedatzen dena oinarritzat hartuta.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 21an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, eskola ordutegiko osasun larrialdiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak eskola ordutegiko osasun larrialdiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du eskolako osasun aseguruari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak ez du osasun asegururik itundu inolako osasun erakunderekin. Nahitaezko eskola asegurua, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen duena, funtsean honakoetan dago arautua: 1953ko uztailleko

Legean eta 1953ko abuztuaren 11ko Foru Aginduan.

Ikastetxean matrikula egitearekin batera, ikasleek aipatutako aseguruaren tasa ordaindu behar dute. Horren ondoren, ikastetxeak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari dirusarrera egiten dio eta ukitutako pertsonen zerrenda bat ematen du. Gero, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak berak, aplikatzekoa den araudia eta haren interpretazioaren arabera, matrikulatu diren ikasleak onartu edo baztertzen ditu. Era berean, Institutu berari dagokio gertakizun desberdinen prestazioak ematea edo ukatzea.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Nafarroan duen probintziako zuzendaritzak Hezkuntza Departamentuari eta aseguruak eragiten

dien ikastetxeei esan die 2005/2006 ikasturtean eskola aseguruarekin laguntza ematen duten ospitaleak hauek direla: San Fermin klinika eta Klinika Unibertsitaria.

Hezkuntza Departamentuak ez du eskumenik eskola aseguruaren kudeaketan; hortaz, ikastetxeek beraiek, hala publikoek nola pribatuek, tasa kobratzeko eta eskolako istripuen kasuan behar den administrazio tramitazioa besterik ez dute egin behar.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 22an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Nafarroako hezkuntza sistemako gela aurrefabrikatuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Nafarroako hezkuntza sistemako gela aurrefabrikatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 31ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera bat egin du ikastetxe publikoetan dauden modulu aurrefabrikatuek akustikari

buruzko arauak betetzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Ikastetxe publikoetan dauden modulu aurrefabrikatuek "NBE-CA-88. Eraikinetako baldintza akustikoak" izeneko eraikuntzari buruzko oinarrizko araua betetzen dute. Izen berri hori oinarrizko arauaren 1998ko irailaren 29ko Aginduak onetsia da. Aipagai dugun oinarrizko araua ekainaren 24ko 1909/1981 Errege Dekretuak onetsi zuen eta abuztuaren 12ko 2115/1982 Errege Dekretuak eta 1988-09-29ko Aginduak aldatu zuten.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 22an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	